

Herririk Herri |6|
Pilar Zubiaurreri buruzko liburua
aurkeztuko dute bihar Garain

Ekonomia |10|
Lan istripuetan hildako behargin
kopurua bajatu egin dela dio Osalanek



Berbaz |9|
Amagoia Villanueva: "Nekazaritza
ekologikoa ogibide legez aukeratu dut"

Durangoko aire-kalitatea "nabarmen" hobetu da

> Udalak 2006tik airearen kalitateak izan duen bilakaerari buruzko datuak eman ditu

> Urteko 44 egunetan aireak kalitate txarra izan zuen 2006an; 2009an egun batean

3

Gerediagatik Garaira bidegorria eraikiko dute

Abadiño• A8aren hirugarren erreilaren eraikuntza dela-eta lurren beteketa hasi aurretik Gerediagatik Garaira bidegorria eraikiko dutela jakinarazi die Aldundiak auzokideei. Lanak datorren astean jarriko dituzte martxan. Zati handiena egindakoan, lurren beteketa egiteko egunean 500 kamioi pasatuko dira Gerediagatik Garaira.

2



Ana Dominguez

San Blas azokan Durangaldeko baserritarrak izan dira nagusi

Abadiño• San Blas azokak milaka bisitari hartu zituen eguaztenean. Azokako sariketan eskualdeko baserritarrak nagusitu ziren. Gana du onenaren saria Jon Bikandik (Iurreta) jaso zuen. Behi onenaren saria Maria Teresa Monas-

teriok (Abadiño). Zezen onenarena Aitor Bilbao (Abadiño). Bigantxa onenarena Jacinto Iturriagaetxebarriak (Abadiño). Ortuariena Adela Andikoetxeak (Urduliz) eta fruitu onenaren saria Jose Etxebarriak (Gatika).

8

•Elorrio

laz baino milioi eta erdi gutxiagoko aurrekontua

4

•Atxondo

Liburutegia Gaztetxera lekualdatu dute

7

•Otxandio

Udaletxe pareta oinezkoendako egokitu gura du Udalak

2

•Zaldibar

Desjabetzeen hitzarmena adostu dute Udalak eta jabeek

6

Durangaldeko Baserritarren Elkarte



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

HERRIRIK HERRI >

ABADIÑO

Bidegorria eraikiko dute Esterripatik Garaira bitartean

A8ko hirugarren erraila dela-eta lurren beteketa hasi aurretik espaloia egingo dutela azaldu dute

Gerediagako auzokideak A8 autobidearen hirugarren errailaren eraikuntza dela-eta Bizkaiko Foru Aldundiko Obra Zuzendaritzagaz batzartu dira. Autobidea zabaltzeko lanei duela hilabete ekin zieten, San Blas hostalaren parean eraikiko duten biribilgunearen proiektuko lan batzuekin batera.

Lurren beteketa dela-eta auzotik Garaira egunean 500 kamioitik gora pasatuko direla berretsi dieten arren, aurretik Esterripatik Garaira bidegorria eraikiko dutela azaldu diete. Oinezkoendako bidegorria eraikitzeke lanak datorren astean hasiko direla azaldu du Aldundiak auzokideen bileran.

Datorren astean hasiko dira bidegorria eraikitzeke lehenengo faseagaz lurren beteketatik Momoitioraino

Ezaugarriak

Bidegorriak bi metroko zabalera izango du eta urak batzeko areka izatea aurreikusitako dute. Errepidearen mailan egongo den arren, bereizgarri moduan irtengune batzuk jarriko dituzte trafikotik banatzeko segurtasun neurri legeez.

Proiektuaren bultzatzaileek jakitera eman dutenez, lanak hiru fasetan banatuko dituzte. Lurren beteketatik Momoitioko bidegurutzeraino zazpi astetan arituko dira. Bigarren fasean handik Gerediagaraino helduko dira. Lanak hirugarren fasean amaitzea aurreikusitako dute.

Esterripan erreka gainetik zubia eraikiko dute. Zubia eraikitzea ei da obra honen konplexutasun handiena eta bidegorria egiten baino denbora gehiago beharko dutela jakinarazi dute.

Bidegorriaren tarte batzuetan orain dagoen espaloia handitzeko aprobetxatuko dute. Base-lizaren parean espaloia metro bat



Bidegorriak metro biko zabalera izango du eta errepidetik banatzeko bereizgarriak izango ditu.

zabalduko dute. Zubia egiteko denbora gehiago beharko badute ere, martxoaren amaierarako bidegorriaren zatirik handiena gertu izatea itxaroten du Aldundiak. Bidegorriaren zatirik handiena egindakoan hasiko dira auzotik kamioiak pasatzen.

Bidegorriaren eraikuntzan lurzoria indartzeko lanak martxan jarriko ditu Aldundiak

Aldundiko teknikarien berbetan espaloien eraikuntzarekin batera oraingo bidea indartzeko lanak martxan jartzeko aprobetxatuko dute. Behin-behinean lurzoria bertatik pasatuko diren kamioien eragina jasan ahal izatea da lanon helburua. ■ I.E.

Astean hirutan lanaldi erdi Zelaietan egingo du medikuak

Osakidetzagaz izandako batzarrean mediku berriak astean hirutan lanaldia Zelaieta eta Matiena artean banatzea adostu zutela jakinarazi du Gobernuak

Hedabideetara helarazi duen oharren bitartez jakinarazi du astean Udako Gobernuak dagoen Talde Independienteak, Zelaietako osasun zentroaren inguruan sortutako arazoa "lortu zitekeen akordio onenagaz" itxi dutela.

Udal Gobernuak bidali duen oharren arabera, Osakidetza Abadiñon izango duen bosgarren medikuak Zelaieta eta Matienako zentroen artean banatuko du astean hirutan bere lanaldia. Astean hiru egunetan beraz, lanaldi erdi Zelaietan eta beste erdi Matienako anbulatorioan artatuko ditu abadiñarrak. Zabalduko idazkian Navarro alkatearen berbetan azaldu dutenez, 1.500 herritar artatuko ditu horrenbestez mediku berriak.

Abendutik aurrera Osakidetzaaren arreta Matienako zentroan jasoko zutela esanez bidali zieten gutunak eragindako egonezina adierazi zuten orain hilabete bi Zelaietako auzotarrek. "Ordutik,

zalapartarik sortu barik, negoziatioetan herritar guztiek osasun arreta euren bizilekutik ahalik eta gertuen jasotzea ahalbidetuko zuten akordioa" lortzeko helburuz aritu direla dio Gobernuak.

EAJk ere astean bidali du gaiari buruzko oharra, eta bertan diotenez, Gobernuaren jarduna ez du horrela ikusi.

Herritarren egonezinen berri jaso zutenetik, zaratarik egin barik negoziatioetan jardun dutela dio Udala Gobernuak

"Osakidetzagaz lortutako akordioa behin behineko irtenbide" legez ikusten dute jeltzaleek

Bestelako soluzioen eske

Udal Gobernuak Talde Independienteak lotutako irtenbideagaz "pozik" daudela onartzen duten arren, emandako konponbidea "behin-behinekoa" izatea espero dutela azpimarratu dute jeltzaleek. Euren berbetan, "errealitateak bestelako soluzioak" eskatzen baititu. "Auzo batzuen hazkundeak eskatzen duena, bestelako irtenbidea" dela nabarmendu du Axier Garate bozeroale jeltzaleak.

Joan zen barikuan Udaleko alderdi politikoen bozeroaleek eta alkateak izandako batzarrean lortutakoa, "alkatearen orain arteko kudeaketa eskasa" konpontzeko soluzio moduan ikusten duela adierazi du EAJk.

Oharrean adierazi dutenez, Muntzaritzen biztanle kopurua asko igoko delako, etorkizunerako neurriak eskatu ei zizkieten jeltzaleek Osakidetzaari. "Gaia aztertuko dutela" adierazi ei zien Osakidetza ordezkariek. ■ I.E.

OTXANDIO

Udaletxe pareta oinezkoentzat egokituko dute

Enplegu eta jasagarritasunera bideratutako estatu fondoko diru-laguntza eskatu du Udalak. Laguntza horregaz proiektu bi egin gura dituzte. Batetik, udaletxetik kultur etxera doan tarte oinezkoentzat egokitu gura dute. Izan ere, 2007an Urigoienetik Uribarrenara arteko zatia oinezkoentzat ipini zuten, baina aipatutako zati hori amaitu barik utzi zuten, diru faltagatik.

70.000 euroko inbertsioa aurreikusitako dute alde hori oinezkoentzat jartzen amaitzeko.

Mañondon dagoen Ur Edangarriaren Tratamendurako Estazioa ere berriztatu nahi dute

Bestalde, Mañondon Ur Edangarriaren Tratamendurako Estazioa dago eta hango azpiegitura batzuk hobetu gura dituzte, zaharkituta geratu delako. Lan horiek gauzatzeko 60.000 euro bideratuko dituzte. ■ J.D.

MAÑARIA

Umeentzako zinema Udaleko batzar aretoan

Zapatu honetan, otsailaren 7an dute herriko haurrek zinema emanaldirako hitzordua. Udaletxeko batzar aretoan, 17:00etan, egun horretarako filma aukeratzeko ardurak izan duen gurasoak hautatutakoa izango dute ikusgai. Duela urtebetetik egiten dute hamabost egunetik behin, domeketan. "Batez ere eguraldi txarra egiten duen domeka arratsaldeetan elkartzeko aitzakia" dute, gurasoek azaldu digutenez, Andra Mari Dantza eta Abesbatza taldeak antolatzen duena.

Hamar ume inguru batzen dira hamabostero, udaletxeko batzar aretoari ohikoa ez den erabilera ematera. Apirilera arte, hamabostero elkartuko dira. Zinema eguna noiz ailegatu zain egoten ei dira umeak: otsailaren 21ean dute hurrengoa. ■ I.E.

Hamar ume inguru batzen dira Andra Mari taldeak antolatutako zinema emanaldietara



DURANGO

Urteko egunen %60an ona da airearen kalitatea

2006an 44 egunetan kalitate txarra zeukan; orain kopuru hori urteko egun batera jaitsi da

Durangoko airearen kalitatea neurtzeko eta behar zen eremueta "neurriak hartzeko helburuagaz" lanean hasi zen Gobernu Taldea 2006an. Urte hartako datuak "herritarren osasunerako arriskutsuak ez ziren arren, konplikatuak izan ziren", Aitziber Irigoras alkatearen esanetan. 2009ko datuek, aldiz, hobekuntza nabarmena islatzen dute.

Krisiak airearen kalitatearen hobekuntzan eragin omen du; enpresek gutxiago ekoizten eta, ondorioz, kutsatzen dute

2006. urteko egunen %12,24an (44 egun) airearen kalitatea txarra izan zen; orain ehuneko hori 0,28koa da (1,02 egun). Bestela esanda: 2006an urteko egunen %24,5ean (91 egun) zen ona airearen kalitatea; orain, berriz, %60,2an (219 egun).

Arloz arloko datuei dagokienez, NO₂aren (nitrogeno dioxidoa)

ingurukoak azpimarratu dituzte, "ibilgailuei eta herriguneko trafikoari dagozkionak". Europar Batasuneko araudiak metro kubikoko 40 mikrogramotan ipinia du limitea. 2006an 38ra iritsi zen Durangon; orain 32koa da: "Datu aipagarria da, kutsaduraren ikuspuntutik ez ezik, herriguneko mugikortasunari dagozkion ondorioak atera daitezkeelako. Ildo horretatik emandako pausoak onak izan direla erakusten dute datuek". Eremu horretako hurrengo urratsak laster aurkeztuko duten Mugikortasun Planak zehaztuko ditu. Hilabeteen prest izatea espero dute.

Bestalde, krisiak airearen kalitatearen hobekuntza eragin duela adierazi dute: "Datu kontrajarria dirudi, baina halaxe da. Krisiaren eraginez enpresek gutxiago ekoizten dute eta, ondorioz, gutxiago kutsatzen dute".

Datuak onak diren arren, egoera aztertzen eta behar den eremueta neurriak hartzen segitzeko asmoa erakutsi dute. ■ J.D.

Argiteria publikoan eta udal eraikinetan energia aurrezteko hobekuntzak

Tokiko inbertsioetarako laguntza baliatuko dute 1,7 milioi euroko proiektuak gauzatzeko

Udalak Tokiko Enplegu eta Jasangarritasunerako Plan Estatala baliatuko du argiteria publikoaren eta udal eraikinen energia kontsumoa eraginkorrago bihurtzeko. EAJ, Aralar, PSE-EE eta PPren botoekin onartu ziren proiektuak. Talde mistoa abstenitu egin zen: "Proiektuekin ados gaude, baina dirulaguntzen atzetik, laguntzeko nahia baino helburu propagandistikoa ikusten dugu", adierazi zuten.

Lau udal eraikinetan eragin-kortasun energetikoa hobetzeko lanek 340.000 euroko aurrekontua dute. Landako Guneko argiteria aldatuko dute; 662 lanpara aldatuko dituzte energiaren %68 aurrezteko. Udaletxean inertzia termiko txikiagoa duten 76 erradiadore ipiniko dituzte, orain daudenak kenduta. Azkenik, Laudibeta 6-Bko udal etxebizitzetan eta

Landako kiroldegian eguzki indar bidezko azpiegitura termikoak ipiniko dituzte.

Ur edangarriko azpiegituran 733.000 euro erabiliko dituzte. Batik bat, ur azpiegitura osoan ur galerak zein puntutan dauden eta zelan konpondu daitezkeen aztertuko dute. Bestalde, ur jarioa erregulatzeko balbula gehiago ipiniko dituzte. Horrela, ur mozketak egiten direnean eremu txikiagoa geratuko da ur barik.

Beste 300.000 euro inguru Landako eta Zabalarra ikastetxeetan garbiketa orokorra egiteko erabiliko dituzte.

Argiteria publikoa

Argiteria publikoa Udalaren urteko energia kontsumo orokorraren %55 da. Alderdi hori hobetzeko asmoz, bost gunetako kontsumo energetikoa moldatuko dute (300.000 euro). Askatasun etorbidean, Arriluzea eta Intxaurren kaleetan, Tabiran, Pinondo parkean eta Andra Mariko elizpean hainbat argiteria aldatuko dituzte, argi-kutsadura eragotziz. ■ J.D.

Argiteria publikoak udaleko energia kontsumoaren %55 suposatzen du urtean; eremu hori hobetu gura dute



Azken hiru urteetan airearen kalitateak onera egin duela adierazten dute datuek.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE OTSAILAK 6 larunbata - 11:00

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI OTSAILAK 11 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA OTSAILAK 18 osteguna - 18:00

ARETO NAGUSIAN

etorri aurretik izena eman!

902 110 436 - www.mondragon.edu/prest

ELORRIO

Iaz baino milioi eta erdi gutxiagoko aurrekontuak onartu ditu Udalak

Soberakinekin eta Plan E delakotik jasotako laguntzagaz egingo dituzte inbertsio nagusiak



Txantxibiri izenez ezagutzen den zonaldea oinezkoentzat hobetuko dute. Amaia Ugalde

Udal taldeak orokorrean pozik agertu dira partida guztiak batzorde guztietan aztertu eta eztabaidatu dituztelako. PSE-EEK kontra bozkatu du presoen senideei emango zaizkien diru laguntzengatik, eta EAJ abstenitu egin da, "egoera ekonomikoa dela eta ezin delako Elorrio aurrekonturik barik egotera kondenatu".

Aurten, diru-sarrerak nabarmen jaitsi dira udal guztietan, eta Elorrioren ere horrelaxe izan da. 2010erako 6.994.930,70 euroko aurrekontua du Udalak, iaz baino milioi eta erdi gutxiago. Murriz-

Udalak ematen dituen diru laguntzetan murrizketak egin dituzte eta inbertsio nagusiak aurrezkiekin egingo dituzte

Hiri Antolamendurako Plan Nagusia jendaurrean aurkeztuko dute bihar, Arriolan

keta hori kontuan hartuta plan-teamendua zeharo aldatu behar izan dutela nabarmendu du Niko Moreno alkateak.

Udalak ematen dituen diru laguntzetan murrizketak egin dituzte, eta inbertsio nagusiak Plan E delakoaz eta Udalak urteetan pilatutako aurrezkiaz egingo dituzte.

Inbertsio nagusien artean honako hauek daude: Berriotxo kalean, Txantxibiri izenez ezagutzen den zatia oinezkoentzat asfaltatzea eta inguruak hobetzea; umeentzako parke berriak egitea,

INBERTSIOAK

Aurrekontu osoa:

6.994.930 euro

Txantxibiri kalea oinezkoentzako jartzeko

1.100.000 euro

Kiroldegiko azpiegiturak hobetzeko

250.000 euro

(900.000 euro hiru urtean)

Auzo kontseilua egonkortu eta auzoetan hobekuntzak egiteko

100.000 euro

Argiñetatik Anduetxetara ur hornikuntza berria egiteko

150.000 euro

Nizeto Urkizu inguruan egingo dutena, esaterako; Argiñetatik Anduetxetara ur hornikuntza berria jartzea, eta kiroldegian hobekuntzak egitea.

Plan Nagusia jendaurrera

Joan zen egunean Hiri Antolamendurako Plan Nagusia erakusketan ipintzea onartu zuten udalbatzarrean, eta bihar (17:00etan) jendaurrean aurkeztuko dute Arriolan. Niko Moreno alkateak, Maria Jose Olabarria Elorrioko arkitektoak, Juan Landa aholkulari juridikoak eta Juan Ramon Lombera arkitekto erredaktoreak azalduko dute Plana.

Erakusketa otsailaren 8tik aurrera egongo da kultur etxean. Herritarrek alegazioak egiteko aukera izango dute, eta plana maiatzaren bueltan onartzea itxaroten dute. ■ A.U./J.D.

IURRETA

Gazteen urteko asanblada egin zuten zapatuan

Batzar irekirako deia egin zuen joan zen urtarrilaren 30ean Iurretako Gazte Asanbladak. Joan zen urtean egindako ekintzen balorazioa alde batetik, eta batez ere datozen hiletan emateko dituzten pausoak zehazteko helburuz egin zuten deialdia. Aurrerantzean gazteak asanbladara erakartzea zehaztu dute helburu nagusi moduan.

Asanbladetan indarrak gehitzen eta orain arte bezala askotariko ekintzak antolatzen jarraitu nahi dute

Herriko gazteak asanbladan parte hartzea erakartzeko, gazteei zuzenduriko ekintzak antolatzen jarraituko dutela aurreratu dute, eta ahalik eta modu berritzaileenak baliatuko dituzte horretarako, nabarmendu dutenez. Betiere euskara sustatzea, presoak etxeratzea eta "proiektu txikitzaileen aurka egiteko konpromisoari eustea" izango dituzte jomuga.

Gazteak asanbladara erakartzea zehaztu dute datozen hilabeteetarako helburu nagusi moduan

Bilgune eta Gaztetxe izan zuten Abadetxea orain hiru urte erre zitzaientetik elkargunerik ez izateak kalte egin diela onartu dute gazteek. Horren aurrean, asteroko asanbladetan indarra gehitzen joatea eta, aukera duten neurrian, elkartzeko gune berria izateko esperantzagaz jardungo dutela azpimarratu dute. Herriaren beharrakasetuko dituen erai-kin baten beharra ere nabarmendu zuten beste behin, batzarrera batutako gazteek. ■ I.E.

DURANGALDEA

Hilero itxialdiak herriz herri, presoen eskubideen alde

Durangaldeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak "konpromisoak hartzeko unea" dela adierazi du

Zapatuan, presoen borrokaldiaz gazte bategin zuen baraualdia amaitu eta manifestazioa egin zuten Durangon. Manifestazioak ehunka lagun batu zituen. Aurretik, prentsaurrekoa eman zuen eskualdeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak.

Durangaldeko AAMren iritziz, "urtarrilaren 2an Bilbon egin genuen bezala, presoen eskubideen aldeko mobilizazioen bitartez, egoera gaitzetez lor dezakegu. Baina argi dugu ere, mobilizazioetatik harantzago joan behar dugula, eta konpromisoak hartzeko unea iritsi zaigu". Horrega-

tik, dinamika iraunkorra abiatuko dute presoen eskubideen defentsan: hil bakoitzeko azken astean itxialdiak egingo dituzte herriz herri. Elkarteekin eta eragileekin hitz egingo dutela aurreratu dute. Adierazi dutenez, "herritarren inplikazioa eta bultzada izango da gure ustez, egoera hau gaitzetezko giltza". ■ J.D.

"Herritarren inplikazioa eta bultzada izango da egoera hau gaitzetezko giltza", AAMko kideen ustez



Andra Maritik irten zen zapatuko manifestazioa. A. Dominguez

MALLABIA

Inauterietako egitaraua prestatu dute

Udalaren eta herriko taldeen artean prestatu dute bihar hasi eta otsailaren 16ra arte antolatutako egitaraua. Arratsaldeko 18:00etan txitxi-burruntzia egingo dute Trabakuan eta ondoren txokolate jana. Datorren barikuan Trikitiekugaz triki-poteoa eta VI. Bizkaiko Irekiko binakako final-laurdenak profesional mailan izango dira. Zapatuan neskek palako hiru partidu jokatu dituzte. Martitzenean, hilak 16, umeek jolasak, kantua eta dantzak izango dituzte goizean eta 14:30etik 16:30era haur parkea. Arratsaldeko 17:00etan txokolate jana pilotalekuan. Erromeria eta moztzorro lehiaketa ere antolatuko dituzte. ■ P.M.

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Kataide Industriegunea, pab. 3
20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52-77 00 34
Faxa: 943 77 13 13

**ORAIN
DURANGON!**

Intxaurrondo, 12 behea
48200 Durango
Tel./Faxa: 94 681 34 85



22 LH-2000
TV 22" LG
240 €



26 LH-2000
TV 26" LG
HD Ready
360 €



LE-32B450
TV 32" SAMSUNG
HD Ready
375 €



TX-L32S10
TV 32" PANASONIC.
Full HD 1080
450 €



TX-P37104
TV 37" PANASONIC
Full HD 1080
520 €

TX-P37104
TV 37" SAMSUNG
375 €



1000 b/min
7 Kg

GARBIGAILUA WM10E20EP
370 €



1200 b/min
7 Kg

GARBIGAILUA WAE 24472FEP
450 €



7 Kg

LEHORGAILUA WTC 84101EE
375 €



ONTZI-GARBIGAILUA 2LF013SX
435 €



1850 X
600 X
600

HOZKAILUA DREAMG 185
490 €

Biltegiako prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA	MEIKEAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELATUKO DA	GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELATUKO DIZUGU	+dendak-eko "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI

ZALDIBAR

Desjabetzeen inguruko hitzarmena onartu dute

Bideak herri erditik igarotzen den trafikoa murriztuko du neurri handi batean

Zaldibarko Olazarko biribilguneetik industrialdera joango den bidea egiteko behar diren lurren desjabetzea egin eta sail horietako jabeekin adostutako hitzarmena onartu dute aho batez Udaltzarraren osoko bilkuraren ohiko batzarrean. Autonomia kaleko 9. zenbakia eta

PA-1 eta PA finkei eragiten diete obrek. 834 metro karratuko lur saila da desjabetu dutena.

Lanak egiten irailean hasi ziren, hasiera batean joan den abenduaren 31rako bukatuta egon behar zuten, baina atzeratu egin dira eta luzatzeko eskakizuna egin dute. Orain martxoaren 31ra arte

dute lanak bukatzeko epea.

Obra honek Estatuak tokiko inbertsioetarako bideratzen duen laguntza izan du, 511.000 eurokoa. Orain industrialdera doazen kamioiak eta autoak herri erditik igarotzen dira, baina lanak bukatzean herri erditik igarotzen den trafikoa murriztu egingo da. ■ G.A.



Olazarko biribilguneetik industrialdera joango den bideko lanak egiten dabilta.

GARAI

Pilar Zubiaurreri buruzko liburuaren aurkezpena

Garain jaiotako intelektual honen gainean mintzatuko dira bihar eguerdiko 12:30ean



Garai, 1966. Gerediaga Artxiboa.

Garaiko Udalak, BBK-k eta Gerediaga Elkartek Pilar Zubiaurren inguruko liburua argitaratu dute. "Pilar de Zubiaurre: Evocaciones. Artículo y Diario" izenburupean, Nebraskako unibertsitatean maisu den Iker Gonzalez-Allendek osatu du liburuxka. Bihar aurkeztuko dute udaletxean, 12:30ean.

Pilar Zubiaurre oihartzunik bako intelektuala izan zela azaldu dute antolatzaileek. Garain jaiotako zen 1884an. Lau urte gaz

Madrilera joan zen familiagaz. Valentin, aita, musika zuzendari ezaguna izan zen.

Gerra-aurreko mugimendu kultural eta politikoan parte hartu ostean, Lorca eta abarrekin, erbestera ihes egin zuen senarragaz. 1970ean zendu zen Mexikon.

Valentin, aita, musika zuzendari ezaguna zen; Ramon eta Valentin nebak ere margolariak ziren



EGUEN ZURI 11	
Karnabaletako kontzertuak Bartolome Ertzilia Musika Eskolan.	18:00
	19:30
LARUNBATA 13	
SURRANDI ETA HARTZAREN KONPARTSAREKIN KALEJIRA	
<i>Kriskittin Dantza Taldea, Jaizale Txistulari Elkarte, Tabira Musika Banda.</i>	
Merkatu Plazan Elkartzea.	18:15
Irteera Merkatu Plazan.	18:45
Bukaera Andra Mariako elizpean.	20:00
ASTEARTEA 16	
Txu txu tren. Irteera Landako Gunean.	11:00 - 14:00
Umeentzako Parkea Landako Gunean.	16:00 - 20:00
Txu txu tren. Irteera Landako Gunean.	16:00 - 20:00
Gazteentzako mozorro jaialdia: diskoteka, karaokea, animazioa eta sarien zozkela. San Agustin Kultur Gunean.	16:30 - 19:30
Haur berbena "Rum Rum Rock" taldearekin Landako Gunean.	17:30
EKINTZAK ADINEKOEN UDAL EGOITZAN	
Tostada lehiaketaren IV. edizioa. Erretiluak entregatzea.	17:30 - 18:00
"DUO MENTA" orkestrarekin dantzaldia.	18:00 - 20:00
Tostada lehiaketaren sari banaketa.	19:00

karnabalak 2010 carnavales



ATXONDO

Liburutegia zabaldu dute Gaztetxeko lehen solairuan

Urte bi barru Urkuzu baserrian egingo den Kultur Etxera eramatea da asmoa



Liburutegi berrian zaharrea baino argi gehiago sartzen da A.U.

Osakidetzako anbulatorioa zabaltzeko lanak hasi direla eta, liburutegia lekuz aldatu dute Atxondon, eta Gaztetxeko lehen pisuan zabaldu dute aste honetan. Laster KZgunea ere bertara eramango dute.

Gaztetxea, baina, ez da izango liburutegiarentzako behin betiko lekua. David Cobos Atxondoko alkateak azaldu duenez, urte bi barru Urkuzu baserrian Kultur Etxea egiteko asmoa du Udalak,

eta bertan egongo dira, besteak beste, liburutegia, ludoteka eta umeentzako liburutegia. Gaztetxeko lehen pisuan musika taldeentzako gela eta gazteentzako ekipamendua jarriko dituzte.

Urkuzu baserriaren eta Gaztetxearen artean 100 metro daude, eta etorkizunean bi etxeak lotuko dituen bidea eta parkea atonduko dituztela esan du Cobos: "Etxebizitzak eta industria banatuko ditugu horrela". ■ A.U.

Gaztetxeko obrak amaituta, liburutegia eta KZgunea jarri dituzte lehen pisuan, aldi baterako neurri moduan

Denbora batera Urkuzun Kultur Etxea egin eta berau Gaztetxeagaz lotzeko parkea egin gura du Udalak

BERRIZ

Udalak eskiatzera joateko irteera antolatu du berriro

Izena emateko epea otsailaren 11tik martxoaren 4ra egongo da zabalik. Lekua mugatua da

Berrizko Udalak Astunera eskiatzera joateko beste irteera bat antolatu du datorren hilera-ko. Hiru eguneko bidaia izango da, martxoaren 12tik 14ra eta Jakako Oroel hotelean hartuko dute ostatu bidaiari joaten direnek

Izena emateko epea otsailaren 11tik martxoaren 4ra egongo da zabalik. Nahi dutenek Berriz-buru kiroldegira hurbiltzea beste-

rik ez dute, eta bertan informazio gehiago izango dute eskuragai. Eskiatzera joateko bidaiari kopurua mugatua da.

Prezioan ostatua, gosaria, bidaia, aseguru eta erremontek sartzen dira, baina logelaren araberako hiru prezio daude. ■ G.A

Prezioak logelaren arabera:

- Bi pertsonako gela 162 euro
- Hiru pertsonako gela 153 euro
- Lau pertsonako gela 146 euro

Astunera eskiatzera joateko aukera martxoaren 12tik 14ra. Jakako Oroel Hotelean hartuko dute ostatu

IZURTZA

Atzeratu egingo da eliza inguruko lanen amaiera

Joan zen urte bukaeran, eta behin Elizbarrutiagaz akordioa lotu eta gero hasi ziren San Nikolas elizaren inguruan lanak egiten. Hasierako aurreikuspena urtarril amaiera edo otsail hasierarako lanak amaitzea zen arren, eta Gobernuko ordezkariak diotenez, "egin duen eguraldiak eta aurrekusi bako arazoek baldintzatuta", hilabete inguru atzeratu da lanen amaiera.

Lanak irauten duten bitartean, elizarako sarbidea ahalik eta erabilgarrien mantentzen saiatu direla, baina zenbait eragozpen sortu direla jabetuak daudela diote Udalean. Lanak bukatuta eta elizaren ingurua berriztatuta aste gutxi barru izango direla azaldu dute. ■ I.E.

DURANGO

Landako guneko aparkalekuak mugikortasun iraunkorraren alde

Landako Guneko aparkalekuak mugikortasun iraunkorra sustatu nahi du eta horretarako eguneko egonaldien prezioak baxatu ditu. Erabaki honen helburua aparkalekuaren erabilera normalizatzea eta Durangoko kaleetatik autoak kentzea da. Hiru zerbitzu mota eskainiko dira erabiltzaileen behararen arabera: txandatzeko erregimena, asteko txartela eta hileko txartela. Aparkalekuko zerbitzua asteleheneetik ostiralera 7:30etik 20:30era eta larunbatean 8:00etatik 15:00etara izango da.

Kultur elkarteek kokaleku berriak izango dituzte

Pinondo Etxeko azken egokitze lanak bukatuta eta Udalak kultur elkarteentzako eskaerak aztertu ondoren, DAZ (Durangoko Alde Zaharra elkarte), Stop Accidentes eta Xanti Sapuherri Elkarte Pinondo etxean kokatuko dira. Bestalde, Garai Jauregiko beheko solairuan GEU BE eta IÑURRI elkarteek utzi diete lokala, alde batetik "biek premia handia dutelako, eta biak aisialdiko taldeak izanik elkarren arteko hartu-emanak estuak direlako, bakoitza bere aisialdiko lan eremua mantenduz". "Kontuan hartu behar da, Garai Jauregia zahartuta dagoela eta berriztapen lan handia beharko lukeela orokorrean".

Zaindu programak laguntza eskeintzen die zaintzaileei

Durangoko Udaleko eta Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Nagusien sailek jakitera eman dutenez, Durangaldean, mendekotasuna duten adineko gehienak etxean egoten dira eta senideek zaintzen dituzte. Denborarekin luzatzen den zaintza honek, gehienetan, zaintzailearen bizitza baldintzatzen du, maila fisikoan, psikikoan eta emozionalean. Errealitate hau kontuan hartuta, Zaindu Programa sustatzen dute, izan ere, "garrantzitsua iruditzen zaigu zaintzaileak prestatzea, bai mendeko pertsona nagusiak zaintzeko trebetasunetan, bai norbere burua zaintzeko alorrean". Hainbat ekintzen bitartez garatzen dute; laguntza, prestakuntza eta orientazio zerbitzua dituzte. Ikastaroa eta mintegiak, eta laguntza tailerra, hau da, taldeko laguntza psikologikoa ere badaude.

DURANGALDEA

Santa Ageda ospatu zuten atzo



Santa Ageda ospatuz ohiturazko koplak abestu zituzten atzo eskualdeko hainbat herritan. Esaterako, Abadiñon Done Zezili abesbatza kalerik kale ibili zen. Iurretan, Mikel Deuna kultur taldearen deia hainbat herritarrek erantzun zioten, auzorik auzo joateko. Elorrioren, soziedadeen elkarteak, Iturriozorok, antolatu zuen ekimena. Oro har, eskualdeko herri danek (Berriz, Durango...) ospatu zuten Santa Ageda eguna.

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltzan
SALTSPAN.COM

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

SAN BLASAK 2010 abadiño



SARITUAK >

San Blas azokako sariak

Ganadu talde onenaren saria Jon Koldo Bikandi iurretarrak jaso du. Behi onenaren saria, Maria Teresa Monasterio abadiñarrak. Zezen onenaren saria Abadiñon, Aitor Bilbaoren baserrian gelditu

da. Bigantxa onenaren saria Jacinto Iturriagaetxebarria abadiñarrak eskuratu du. Ortuarien saria Urdulizko Adela Andikoe-txeak irabazi du, eta fruitu onenaren saria Gatikako Jose Etxebarriak.

Argazkiak: Ana Domínguez



BERBAZ >

“Zuzeneko salmenta da nekazari txikien irtenbide bakarra”

Baserri mundura duela gutxi sartu zen Amagoia Villanueva. Nekazaritza ekologikoan ari da orain



Amagoia Villanueva •

- Mendiolan bizi da
- Duela 9 urte gerturatu zen baserri mundura

Etxez etxe baserriko produktuak saltzen ditu Amagoia Villanuevak. Duela bederatzirte hasi zen baserrian bizitzen, eta ekoizle txikien etorkizuna zuzeneko salmenta dela azaldu digu Mendiola auzoan duen baserrian.

Zu baserriarrazara jaiotzez, edo kalean jaiotakoa eta gero baserri gerturaturakoa?

Auzoan esaten den bezala, ni kalekumea naiz, eta landa eremura gerturatzeko etorri naiz baserriara. Orain arte teknikari lana eduki dut eta beste arlo batzuetan ibili naiz.

Noiztik bizi zara baserrian?

Orain dela zortzi-bederatzirte Zaldibarko baserri batean sartu ginen, eta han hasi ginen etxe ortua egiten. Orain dela hiru urte Abadiñon lurra lortu genuen alokairuan, eta proiektua finkatu genuen.

Zer ekoizten duzue?

Nekazaritza ekologikoan ari gara, eta sasoiari sasoikoa

eta ortuak eman ahal duen guztia ekoizten dugu. Horrez gain, oiloak ditugu arrautzetarako, eta ogi obradore txiki bat daukagu ogi integrala ekoizteko. Ekoiztutakoagaz otzarak osatzen ditugu etxez etxe saltzeko.

Produktuak merkaturatzeko hori da biderik egokiena?

Beste kanal batzuk behar zirela ikusten genuen. Merkaturatzea pixka bat zabaldu behar zela, hurbilagoa egin. Gure moduan etxez etxe ibilita, jendeak erosten duena nork ekoizten duen ikusten du.

Zelako harrera izan dute otzarek?

Ona. Askok oso bizitza lotua dute, oso aisialdi gutxirekin, eta etxe erostetak alde

batera uzten dituzte. Jendeak pozik hartu du etxez etxe zerbitzua izatea, eta osasungarria eta toxikorik bako elikadura eramatea. Beti da jaitxo bat etxera heldu eta otzaran zer datorren ikustea. Sasioaren arabera produktuak direnez, otzara ez da beti berdina.

Eskualdeko baserriar gazte batzuek ere zuzeneko salmentaren bidea hartu dute.

Bai, sarean ari gara lanean, Nekasaren. Zuzeneko salmentagaz zera gura dugu, merkaturatzean kanalik laburrenak sortzea, konfiantzazko harreman zuzena ematea, eta batez ere bitartekari barik baserriatik ogibide eta bizibide duinak lortzea. Gaur egun eredu industrializatuaren aurrean, ustiategi txikiei begira dagoen irtenbide bakarra da zuzeneko salmenta.

Lortzen da bizimodua ateratzea?

Nik itxaropen horrekin egiten dut lan egunero eta

“Etxez etxe ibilita, jendeak badaki erosten duena nork ekoizten duen”

“Baserri mundua abentura bat da eta uste dut beti izango garela ikasleak”

gehiegi. Egia esan, lehen bultzada diru laguntzetatik eta instituzioetatik dator, eta bere tranpa txikiak izan arren, laguntzen dute. Gero ogibide bihurtu eta bertatik biziko naizen, ez dakit, baina itxaropena daukat.

Kaletik zator eta ortu txiki batekin hasi zinen. Hori zelan ikasten da?

Amama izango banu, berarekin ondoen. Baina badaude aukerak: nekazal eskola, formakuntza ikastaroak, EHNEtik ere badago eskaintza... Azken finean, abentura bat da, eta esperientziaren bidez ikasten da, egunero-egunero; uste dut beti izango garela ikasleak.

Krisia nabaritu duzu?

Azken bi urteetan instalazio lanetan ibili naiz batez ere, eta oraingoz krisi aroa igarri dut, baina ez kontsumitzaileei begira. Azpiegituren inguruan diru laguntzak gutxitu egin direla nabaritu dut. ■ J.G./A.U.

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Lan istripuetan hildakoen kopurua bajatu egin da

Jaitsiera langabeziaren ondorio ere badela aitortu du Osalanek



Sindikatuak protestak egin zituzten joan zen urteko urrian lan istripuak salatzeko

Lan istripuetan hildako langileen kopurua bajatu egin da 2008tik 2009ra. Durangaldean 2008an 6 langile hil ziren eta 2009an berriz 4 izan dira, sindikatuen datuen arabera. Industria eta eraikuntza sektoreetan gertatu dira lan istripu gehienak. ELA sindikatuak azpimarratu du behin-behineko kontratuak dituzten langileak izaten direla batez ere lan istripuz hiltzen direnak, "formazio ezagatik edo lanpostu prekarioragatik".

Osalanek aste honetan Euskal Autonomia Erkidegoko 2009ko lan istripuen balantzea aurkeztu du: EAEn 95.177 lan istripu izan ziren iaz, 2008an baino %8,4 gutxiago. Istripu hilgarriak ere gutxitu egin dira %19,48, hau da, 2008an 77 izan ziren eta 2009an

62. Hala ere, jaitsiera langabeziaren ondorio dela aitortu du Osalanek, prebentzio neurriak sendotu direla nabarmendu badu ere. ELA sindikatuak uste du Osalanen datuak ez direla zehatzak, "alde handia dago datu ofizialetatik errealtatera". ELAren arabera, "Eus-

Euskal Autonomia Erkidegoan 95.177 lan istripu izan ziren iaz Osalanen datuen arabera

ELA sindikatuak: "Ez Patronalak ez instituzioek ez dute neurri zehatzik jartzen enpresetan istripuak gerta ez daitezten"

kal Herrian, eta ondorioz Durangaldean, ez patronalak ez instituzioek ez dute neurri zehatzik jartzen enpresetan istripuak gertaez daitezten". Gaineratu duenez, enpresak "mutuez baliatzen dira lan istripuak edo gaixotasun profesionalak ez onartzeko". ■ G.A.

> DURANGO

Erralde, bertako produktuaren aldeko apustuak arrakasta

Erralde hiltegian iaz hil zituzten behien gehiengoa Bizkaikoa zen, %85 hain zuzen ere

Erralde hiltegiak 2009ko balantzea egin du eta ondorioztatu dute bertako produktuaren eta desberdintzearen alde egin duten apustuak arrakasta izaten jarraitzen duela eta Erralde ekonomikoki errentagarria egiten duen arazoietako bat hori dela.

Erralden iaz 7.133 behi hil zituzten. Horietatik %95 Euskal Autonomia Erkidegokoa zen, eta zehazki, hildako 5.991 behi Bizkaikoak.

Bestalde, Erralden 4.665 arkume hil zituzten. %87 Bizkaikoa zen, gehienak Bizkaiko bildotsa izendapenean merkaturatu zirenak. Gainera, Gasteizko abeltzainen 628 arkume ere hil zituzten, eta Gasteizko merkaturatu sar-

> DURANGALDEA

Protestak indartuko dituzte zahar etxeetako langileek

Bizkaiko zaharren egoitzetako beharginak martxoan egun osoko greba egitea aurreikusten ari direla iragarri dute ELA, LAB, UGT eta CCOOek. Durangaldeko zahar egoitzak ere ekimen horren barruan daude. Abenduan bi orduko lanuzteak eta kontzentrazioak egin zituzten, baina sindikatuak iragarri dute hurrengo asteetan ekintzak "gogortu" egingo dituztela.

Sindikatuak lan hitzarmen "duina" lortu nahi dute protesta hauekin; bestela, martxoan egun osoko greba

Lan hitzarmen "duina" sinatzea izango da protesten helburua. Aste honetan, kontzentrazioa egin dute Bilbon.

Astelehenean hitzarmena negoziatzeko bilera egingo dute Patronalarekin, eta enpresaburuek beren eskaintzetan "aldaketasak" egin ezean, mobilizazioekin aurrera jarraituko dutela adierazi dute sindikatuak. Otsailaren amaieran Bilbon manifestazioa egingo dutela argitu dute, eta itxialdiak ere egingo dituzte egoitza ugarian. Zerbait adostu ezean martxoan egun osoko lanuztea dute pentsatuta.

■ kolaborazioa



Jose Petite
CCOO sindikatua

Erretiro adinaren atzerapena

Gobernuak Toledoko Itunaren berrikuspena proposatzen duen dokumentua aurkeztu du. Agiria alderdi politikoaren aurrean aurkeztu ondoren Elkarrizketa Sozialaren mahaian aurkeztuko behar die giza eragileei horren eztabaidarako.

CCOOren jarrera argia da: erretiro adina 67 urtera atzeratzea langileen eskubideen kontrako neurria da beraz, sindikatuak sendotasunez egingo dio uko proposamenari, negoziazio mahaian zein kalean.

Sindikatuaren ustez, Gobernuak proposatzen duen neurria ez da ezinbestekoa; pentsio sistema osasuntsua da eta ongi dabil. Beraz, krisialdiari aurre egiteko plan eta erreformak justifikatzeko diskurtso hondagarrietatik alde egin behar dugu, batez ere, Gobernuak orain arte babes sozialaren eredu publikoa defendatu duela ikusita.

Erretiro adina 67 urtera atzeratzea langileen eskubideen kontrako neurria da

Egoera ekonomikoa larria da, denok kezkatzeko modukoa, baina ezin da horrela jardun Gizarte Segurantzari eragiten dion gai batekin, milioika lagunentzako etorkizuna baldintzatzen baitu horrek.

CCOOren ustetan, gaur egungo pentsio sistema publikoaren indarra mantentzeko modurik onena azken urteetako giza adostasunarekin jarraitzea da. Edozein proposamen egin daiteke Toledoko Itunaren inguruan, baina une honetan, Gobernuak beste betebeharrak batzuei jarri beharko lieke arreta, 2006an sinatutako Pentsioen Akordioei, adibidez.

Gobernuaren proposamena ez da ezinbestekoa; pentsio sistema osasuntsua da eta ongi dabil

ZARATE ELEXP
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

KULTURA[>]



ANTZERKIA > EMANALDIA

'Xabinaitor': komikia antzezlan komiko bilakatua

Anjel Alkain aktorea izan dugu asteon "Xabinaitor superheroi euskalduna" aurkezten, Durangoko San Agustinen. Otsailaren 7an 19:00etan, leku berean Gorringo taldeak eskainiko duen *Xabinaitor* antzezlari buruz egin digu berba.

Patxi Gallego marrazkilariaren izen bereko komikiak oinarri hartuta Nagore Aranburuk moldatu duen lana da *Xabinaitor*. Gallegoren komikiko Xabinaitor protagonista "paperetik errealtatera ekarriko dugu Durangon", aurreratu digu antzezlanean ertzainaren papera egiten duen Alkainek.

Azaldu digunez, "berez istorio poliziako bat da hau", eta Xabino Lizuniaga protagonistaren

papera egiten duen Mikel Pagadizabal harrapatu guran ematen du berak antzezlan osoa.

Komikiaren lehenengo alean oinarrituta, Xabino Lizuniaga *Xabinaitor* izatera zelan ailegatu zen, eta "euskal poxpolinen lurri-na salbatzeko" bere boterea zelan erabiltzen duen erakutsiko digute antzezlanean. Kortajarena izeneko ertzain laguntzailea, Almerian ezagutuko dituzten pertsonaia berezi bi, Xabinoren gurasoak eta "poxpolinak" dira antzezlanean protagonista.

"Euskarazko ikuslego zabalarri zuzendutako" lana dela nabarmendu du Alkainek. "Domeka arratsalde tontoa igarotzeko proposamen" tentagarria. ■ I.E.

12 Zinegoak-etik ekarritako lau filme

Urtarrilaren 29tik otsailaren 6ra arte izan den Bilboko gay-lesbo-trans Zinemaldian parte hartu dutenatariko lau filme erakutsiko dituzte otsailaren 9 eta 12an, Durangon.



13

Rock Izar 'Oh Happy Day'n

Durangoko Rock Izar eskolan Euskal Telebistako 'Oh Happy day' programan parte hartzeko eratu duten taldearen entseguetako batean izan gara.

ZINEMA > EMANALDIAK

Zinegoak jaialditik hiru film labur eta luze bat Durangora

Otsailaren 9 eta 12an, 20:15ean dira filmeen emanaldiak San Agustinen

Urtarrilaren 29tik otsailaren 6ra arte egin dute Zinegoak gay-lesbo-trans zinema jaialdia zazpigarrenez Bilbon. Jaialdian parte hartu duten lanetatik lau eskainiko dituzte Durangoko San Agustinen. Uruguain eginiko *El Cuarto de Leo* izena duen film luzea, eta *The other war*, *Glioblastom* eta *Bañophobia* laburrak emango dituzte otsailaren 9 eta 12an.

Uruguay, Alemania
Israel eta Espainian
ekoiztako lanak dira

El cuarto de Leo-n, bere izate sexuala onartzeko bidean dagoen gazteak umetan maiteminduta izan zuen neska nola aurkitzen duen kontatzen da. Krisi garaia bizi duten lagun biren arteko harremana kontatzen du.

Israelgo ekoizpena da, bestetik, otsailaren 9an emango duten *The Other War*: Eli eta Naama-ren arteko maitasun istorioa kontatzen duen laburra.



'El cuarto de Leo' film luzeko irudi bat.

Alemanian ekoiztako da *Glioblastom*. Gura barik 23 arrain hiltzen dituen bizitza aldatuko zaio Steff-i, eta horixe da istorioaren osagai nagusia, ordura arte zorionsua zen eta.

Blanca Salazarrek zuzendu du, bestalde, otsailaren 12an emango duten *Bañophobia*. ■ I.E.

EMANALDIAK

- Otsailak 9
 - The Other War
 - Glioblastom
- Otsailak 12
 - Bañophobia
 - El Cuarto de Leo

'Pecados de mi padre' otsaileko dokumentala

Elorrioko Iturri kultur etxean, otsailaren 11n da Hilean Behin jaialdiren hurrengo emanaldia



"Eta Pablo Escobarren semea izango bazina?", da 'Los pecados de mi padre' dokumentalak ikusleei egiten dien galdera. Izan ere, Elorrioko Iturri kultur etxean otsailaren 11n 19:30ean ikusgai izango den dokumentalak Pablo Escobar narkotrafikatzaile ospetsuaren eta Sebastian semearen arteko harremana du ardatz.

Pablo Escobar kolonbiar narkotrafikatzailearen eta semearen istorioa

Sebastian semeak narkotrafikatzailea zen aitagaz haurtzaroan izan zuen harremana erakusten du dokumentalak. Filma, bestalde, Escobarren biktikma entzutetsu biren historia ere bada: Justizia

GEURE DURANGALDEA



Arantza Arrazola
San Agustingo programatzailea

Amorratzen nauena

Gaurkoari nondik ebatu nabilela lehenengo bururatu batean hariak nahiko begi bistakoak direla iruditu zait: ekonomia krisian dagoen gehien eta gogorren murrizten diren aurrekontuak kultur gintzakoak direla kontatu dezaket; antzerkigintzan sektore pribatuaren ahulezia, antolamendu eskasa edota diru publikoekiko menpekotasuna ere aipatu nitzake; edota zelan estatuan milaka diren subentzietatik alaudalen kontratazioei esker bizi diren konpainiak. Baina horrek guztiak beste baterako utzi, eta eszena arteetako sektorean gero eta larriagoa den arazo zehatz eta lotsagarri bat azalduko dut.

Gaur egun asko dira krisiak jota dauden antzerki taldeak, asko eta askoren kontratazioak behera egin du eta diru estutasunak pasatzen ari dira; eragiketa erraza da: kontraturik ez = dirurik ez. Ondorioz, eta logika bera alderantziz aplikatuz, uler genezake kontratuak dituztenek trukean dirua ere izango dutela, eta hemen dator kontua! Lana egiten duten taldeak ere egoera ekonomiko larrian daudela, ez baitute euren lanaren ordaina kobratzen.

"Nola liteke hori?" galdetuko du batek baino gehiagok, izan be, administrazioak sinatutako kontratuak hor daude-eta! Eta halaxe da, kontratuak egon badaude, tokiko zinegotzi, alkate edo delakoaren sinadura eta guzti... ezin duguna topatu ordainketaren transferentzia da! Konpainiek hiru bat hilabete itxaroten dute ezer eskatzen hasi aurretik, hori baita administrazioak ordaintzeko duen esperik laburrena, behin trimestrea pasatu eta gero erreklamatu gero... erantzuten dute "faktura tramitatuta dagoela", eta di-da batean ordainduko dela, baina ez "di" ez "da" eta ezta dirurik ere! Berritortzean "dagoeneko guk tramitatu dugu" esan, eta kontu hartzailetza departamentuaren esku uzten zaituzte, eta honek bai edo "ez daki-ez du erantzuten", edota "bai behar bada di-da batean" edota bitan, edo... eta halaxe joaten da lehenengo urtebete, eta gero beste bat, eta administrazioak ordaindu gabe jarraitzen du. Hori bai, bitarteko zerga, tasa eta enparauak ordaintzen jarraitzen dute konpainiek! Larri ibiltzen dira kontratatutako aktoreei ordaintzeko, banketxeek ez diete sosik mailegatzatzen likidezirik ez dutelako, eta hala egoera larri bezain arrunt baten aurrean ikusten dute euren burua. Izan ere administrazioak antzerki konpainieei zor dien dirua, dirua baino "dirutza" baita. Larrua behar da gero norbait kontratatu eta lana egin eta gero ez ordaintzeko!

Ziur nago gainontzeko sektoreetan ere antzeko egoerak biziko dituztela, baina nik nahiago dut ezagutzen dudana berba egin. Bukatu aurretik esan guzti honetan badagoela zerbait harrotzen nauena: administrazio zordunen zerrendan Euskadi azken lekuan dagoelako, hau da, hemen kontratatzen dugu, baina baita ordaindu ere.

ministra eta Kolonbiako presindente hautatzeaz zegoen politikaria. Sebastian bien seme-alabekin bakeak egiten zelan saiatzen den islatzen du baita ere filmak.

Nicolas Entel zuzendari argentinarrak 2009an grabatutako lana da, otsailaren 11n emateko hautatu dutena. ■ I.E.

Kolonbia eta Argentinaren arteko ekoizpena da dokumentala

GALLASTEGI
gallastegiharategiak@euskalnet.net
1955 ean sortua

HARATEGI
ARTISAU ERAMA
ESPEZIALIZATUA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

A. Urpilo

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON BERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - beheak
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podinara Urreta Jainaga
PODOLÓGIA 189. ERAGINDAKO

MUSIKA > ELKARRIZKETA

Zelan doa lehiaketaren martxa?

Euskal Herriko bederatzi koru gabiltz orain Oh Happy Day lehiaketaren finaletan. Lehenago, Oh Happy Day Bidean izeneko lehiaketa egon zen, eta bertan zortzi abesbatza aukeratu zituzten finaletan aritzeko. Guk aurre-aukeraketa horretan ez genuen parte hartu, baina pare bat abesbatzek arazoak izan zituzten lehiaketan jarraitzeko, eta leku horiek betezea proposatu ziguten. Gure eskolan programarako behar zuten profila genuela iruditu zitzaion.

Zelan zoazte lehiaketan?

Honekero saio bi emititu dira, eta bihar, otsailaren 6an emango dute hirugarrena. Kanporaketa bat pasatu, eta aurrera jarraitu dugu.

Zelan sortu zen taldea?

Saioan kantatu ahal izateko barne-aukeraketa horretan parte hartzeko gonbidatu gintuztenean hasi ginen taldea osatzen. Rock Izar Eskolako ikasleak, irakasleak eta lagunak elkartu ginen: eskolako kantuko irakaslea, Mar, da koruaren zuzendaria, Alain bere laguntzailea da, eta beste bi irakasle gauden —Mikel Nuñez eta neu.

“Eskolako ikasleak, irakasleak eta lagunak elkartu gara taldean”

Beste kideak ikasleak dira?

Eskolako ikasleak eta eskolatik kanpoko lagunak ere badaude. Ikasleak, gainera, ez dira denak kantukoak: gitarra eta pianoko ikasleak ere badaude. Eskolan kantua ikasi ez arren, koruan parte hartzera animatu dira. Taldea guztiz osatuta, saioa hasi baino denbora gutxi lehenago izan genuen; dena arinetan prestatzen joan behar izan dugu.

“Taldea guztiz osatuta, saioa hasi baino pixka bat lehenago izan genuen”

Astero elkartzen zarete saioak prestatu eta entseguak egiteko?

Astero aste horretako saiorako abestia prestatzen dugu: asteen hirutan batzen gara. Lan handia da, entseguak egiteaz gainera, programa grabatzeak ere denbora eta lana eskatzen baitu. Entseguak luzeetakoak izaten dira. Abestia eta koreografia aukeratzeaz gainera, estilismoa ere pentsatu beharra dago, orain esaterako horretan gabilta: etxetik ekarritako zer arropa aukeratu pentsatzen.

Banatu egin behar izango dituzue egiteko guztiak, ezta?

Bai, bestela ezinezkoa litzateke: adibidez, Mar zuzendaria da koreografiaren, ahotsen eta musika konponketaren arduraduna. Berak prestatzen ditu, eta gero hona ekarri eta denon artean lantzen ditugu. Beste taldekide bat estilismoaren arduraduna da, beste batek

“Oso interesgarria da lehiaketa, ikasteko beste aukera bat delako”

Durangoko Rock Izar Eskolan sortu den 18 laguneko taldearen martitzeneko entseguan izan gara, **Ibon Larrañaga** taldeko kide eta musika irakasleagaz berbetan. Euskal Telebistan zapatuetan ematen duten ‘Oh Happy Day’ abesbatzen lehiaketan parte hartzen duen eskualdeko bigarren taldea da **Rock Izar Korua**: Mallabiakoagaz batera Durangoko taldea ere ordezkari dugu.



bidaiaren kontua antolatzen du —publikorako nor datorren, autobusa...— Ideiak, baina, denon artean sortzen joaten gara.

Eskolako jendea elkartzeko modu aproposa, ezta?

Guretzako eskola moduan, oso gauza interesgarria da, ikasteko beste modu bat delako. Esperientzia oso ona da denontzat; eszenatoki batean abestea, eta gainera telebistan egitea —zaila goa dena—, ikasteko beste esperientzia bat da. Bestalde, eskolan egiten dugun lana kanpoan erakusteko modua ere bada; egiten dugun lana kanpora ateratzea. Teknika sakon lantzeko aukerarik egon ez arren, espresioa, erritmoa, estilo ezberdinak eta ikasteko aukera da.

Ahotsaz gainera, beste instrumenturik erabiltzen duzue emanaldietarako?

Abesti batzuk grabatutako base batez egiten ditugu, eta beste batzuk grabatutako oinarri barik, pianoak lagunduta. Talde oso bat ezin da platoon sartu, baina instrumentu solteak sartzen uzten digute. Orain arte ez du talde askok egin, uste dut gu izan garela instrumenturen bat sartu dugun lehenengoak. Gure asmoa, hurrengo emanaldietan harmonika sartzea da adibidez.

Zelan aukeratzen dituzue kantatuko dituzuen abestiak?

Kanta batzuk antolakuntzak berak aukeratzen ditu, eta beste batzuk geuk. Batez ere abesti onak aukeratzen saiatzen gara, guretzako oso inportantea da hori. Kantak guk hautatu gabeak izaten direnean, askotan ez dira kanta onak izaten, eta horrek zaildu egiten du gure lana. Gure Eskolan asko lantzen dugu hori: jendeak musika ona entzutea eta apreziatzea. Ikusten dugu gero eta gutxiago gertatzen dela. Ahotsen aldetik konponketa poli-

“Lehiaketan lan ona egiteko aukera dugula ikusi dugu orain arte”

tak egiteko aukerak ematea ere izaten dugu kontuan. Baita, antzetzeko orduan, istorio bat kontatu ahal izatea. Hurrengo bi saioetarako *Piano Man* eta *Fever* kantak hautatu ditugu.

Aukerarik ikusten duzu lehiaketa irabazteko?

Lehiaketan lan ona egiteko aukera dugula ikusi dugu orain arteko saioetan. Aurrera segitzeko maila nahikoa dugula uste dut. Noraino zaila da jakiten, baina aurrera jarraitzeko aukera ikusten dugu, bai. ■ I.E.

Adinari dagokionez, lehiaketan parte hartzen duen talderik anitzena da

Ibon Larrañaga taldekide eta musika irakasleak dioenez, Euskal Telebistako ‘Oh Happy Day’ abesbatzen lehiaketan parte hartzen duen “talde dibertsoena” da Rock Izar Korua; 14 eta 45 urte arteko musikariek osatzen dute Rock Izar Korua taldea. Beste talde gehienak adin bereko kideek osatzen omen dituzte.

Telebistan aritzeak horrenbesteko lana ekarriko lukeenik ez zutela imajinatzen kontatu digu Larrañagak. Izan ere, “telebistan lan oso txarra egitea oso gogorra izan daiteke, biluzik moduan geratzen zarela”. Horrenbestez, ahalik eta lan onena egiteko, taldekide guztiek “inplikazio handia” erakusten dutela, eta talde giro oso ona

sortzea lortu dutela azpimarratu digute. Hasierako programetan ez bezalako lasaitasunez aritzen omen dira orain, asteroko saioetan.

Rock Izar Eskolan, abesbatza tradizional moduan ez, baizik *conboetan* kantatu eta jotzen dute instrumentu desberdinetako ikasleek. Musika modernoaren muina dela instrumentu desberdinen arteko lana kontatu digu Ibon Larrañagak. Eskolan diharduten berrehun ikasleei, taldeetan elkartu, eta beste musikari batzuekin aritzeko aukerak eskaintzea dute Rock Izar Eskolan helburu. Duangoko Alluitz kalekoa, Ibon Larrañaga irakasleak nabarmendu digunez, “musika modernoaren eskola” baita.

MUSIKA > KONTZERTUA

Habeas Corpus 'Rarezas' azken diskoa aurkezten

Bihar da Abadiñoako San Blas jaietako Trikizio eta Habeas Corpus taldeen zuzeneko saioa

Gaur dira Abadiñoako San Blas jaien programazioaren barruan txosnagunean izango diren kontzertuetan lehenengoak: Durangaldeko musikarien txanda da, eta Pixontxis, Tributo a Rip eta Delirium Tren Ez taldeek joko dute.

Bihar, berriz, otsailaren 6an, 23:00etatik aurrera, *Rarezas* hamargarren diskoa aurkeztera datozen Habeas Corpus madrildarrek izango da hitzordua Abadiñoako San Blas jaietan.

Taldearen 15 urteko ibilbidean landutako hardcore estiloko kantak, eta gustuko dituzten taldeen bertsoiak uztartuko dituzte txosnaguneko emanaldian: Sick Of It All, Agnostix Front edo El Corazón del Sapo taldeen kanten moldaketak kasurako.

Euren ibilbide musikalean eredu eta gustuko taldeei "omenaldia" egiteko era legez ulertzen dute Habeas Corpusekoek bertsoiak eskaintzea. Bestalde, taldearen ibilbide horretan hainbat



'Rarezas' diskoan bildutako kantak zuzenean sanblasetan

arrazoirengatik alboratuta geratu izan diren kantak ere bildu dituzte hamargarrena duten *Rarezas* diskoan Habes Corpusekoek.

Hitzei dagokienez, taldeek eurek nabarmentzen duten bezala, "konpromiso politikoa"

sormenarekin uztartzetik sortzen dituzte euren kantak.

Madrildarren doinu eta berbagorren ostean, Ordiziako Trikizio taldea arituko da sanblasetako txosnagunean biltzen diren artean jai-giroa zabaltzen.

MUSIKA > KONTZERTUA

Bere ibilbideari errebasoa eman zion Plateruenean Garik

Bete egin zen Plateruena, '16 lore' diskoa aurkezteko Garik eskaini zuen kontzerturako

Joan zen zapatuan izan zen Durangoko Platerueneko Gari musikari legazpiarraren kontzertua. '16 lore' azken disko bertso berriak bildu dituen Hertzainak taldean zebileneko kantak zein bere bakarkako ibilbidekoak kantatu zituen.

Azken kantak oholtzara igozteko eskaileretan jesarrita, mikrofonotik aldentuta, eta kontzertu guztian lagundu zuten musikariak aldamenen jesarrita zituela eskaini zituen Garik. *Astiro eta amorruz* kanta musika barik kantatu-errezitatu zuen esate baterako.

Entzuleek txalo eta kantuz lagundu zituzten "beste bat" eskatu ziotenean Garik Plateruenean bildutako eskaintako kantak. Horrela eskertu zuten entzuleek Garik kontzertuan erakutsi zuen zintzotasuna. Atzealdeko pantailan irudiak ematen zihozten bitartean gitarra, eta kanta batean perkusioa ere jo zuen Garik.

Ondoan, audio programazioan, eta gitarra elektrikoa eta baxua jotzen izan zituen taldekiak. Ondoren, Joseba Irazoki ere aritu zen Plateruenean.

Entzuleek txalo eta kantuz lagundu zituzten Gariren kanta ezagunak

Musikak lagundu barik, ia errezitatu egin zuen 'Astiro eta amorruz'



Antonio V.

MUSIKA >

La Papa Teatrok 'Rosas rojas' aurkeztuko du Eibarko jaialdian

Datorren eguaztenean Eibarren hasiko dituzten 33. Antzerki Jardunaldietan euren lanak erakusten parte hartuko duten hogeitik gora antzerki taldeen artean izango da Durangoko La Papa Teatro ere, 'Rosas Rojas' erakusten. Otsail eta martxo osoan da Eibarren antzerki konpainien aurtengo hitzordua.

Martxoaren 12an izango da La Papa Eibarko jaialdian

Martxoaren 12an da Durangoko La Paparen hitzordua. Eskolako antzokian izango dute euren emanaldia. Besteak beste, Bartzelona, Madril eta Zaragozako antzerki taldeek aurkeztuko dituzte otsail eta martxoan euren proposamenak Eibarko Antzerki Jardunaldietan. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

MUS 2010 TXAPELKETA

OTSAILAK 6 17:30ean
II. EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA
Bizkaiko finala
MUS TXAPELKETA.

OTSAILAK 8 17:30ean
BETI LAGUN
Ipuin kontaketa txotxongiloekin
UMEENTZAKO ANTZERKIA. Sarrera: 3 euro.

OTSAILAK 12 22:00etan
ROY LONEY & SEÑOR NO +
THE HI RISERS + THE DIRTY PINK LADIES
KONTZERTUA. Sarrera: 15-18 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

XABINATOR
Gorringo antzerki taldea (Legorreta)

Otsailak 7 • 19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

11:51 601 07 76 Artekale, 14 Durango

Heldu da garaia, zatoz gu ezagutzera

Zuen beharretara moldatuko gara.



María Bitarteko eta Lourdesko Ama ikastetxeak

- Bertako euskera eta euskal kulturaren bultzatzaile
- Haurtzarindegia "zuen beharretara" goizeko 7:30etatik arratsaldeko 19:30etara. Eskolako ume guztiarentzako zabalik.
- Uztail oso zabalik.
- Dramatizazioa eta psikomotritzitatea.
- Ingelesa 3 urtetik aurrera.
- Herriaren erdian kokatuta.
- Baliabide didaktiko guztiak eta hezkuntza berritzailea.
- Elkarbizitza baserrian eta barnetegietan.
- Zela: zabalak, natura erdian ikasteko eta gozatzeko.
- Jantokia: bertako irakasleekin, 0 urtetik aurrera.
- Lan talde gaztea, esperientzaduna, inplikatu eta etengabeko heziketan.
- Ikasleen jarraipen eta orientabide zerbitzua familien harreman estuarekin.
- Liburutegia: ikasketa leku eta giroa irakasleek zuzendua, DBHrako 16:00- 18:00 eta LHrako 17:00- 18:00.
- Ingurugiroko hezkuntza: energia garbier bultzatzailea eta eskola ortua.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: karate, gimnasia erritmikoa, yoga, kitarra...
- Eskolako aldirikaria.
- Baloreen hezkuntza.
- Uztailaren Udako Eskola.

Proiektua martxan



María Bitarteko Ikastetxea
Urarka, 2 - tel. 94 623 16 26
mariabitartekoikastetxea@hotmail.com

Lourdesko Ama Ikastetxea
Lourdes etorbidea, 8 - tel. 94 682 00 56 fax: 94 623 16 95
lourdeskoama@hotmail.com

www.lourdesmariabitarteko.com

OTSAILAREN 1tik 12ra MATRIKULA ZABALIK

Egoitza berria inauguratu du Geu Be elkarteak



Argazkia: Ana Dominguez

San Faustoko eskoletatik Kurutziagako Garai jauregira eroan du etxea Durangaldeko Geu Be elkarteak. Joan zen barikuan egin zuten lokal berriaren inaugurazio ekitaldia; indar handiz eta ilusio berriekin hasi dute 2010a. Gurasoek, begiraleek eta kideek beso zabalik hartu dute Anboto.

Ibilbide luzean beste pauso bat eman du Geu Bek: egoitza aldaketa

Behar bereziak dituzten Durangaldeko gazteen familien elkarteak 7 urte daramatzalanean, etabere ibilbidean beste pauso bat eman du: egoitza aldaketa. Urritasun psikikoa duten pertsonengabeziak betetzen ahalegindu guran sortu zen elkartea, lau familiaren iniziatibaz. Proiektua sendotuz joanda, kuantitatiboki zein kualitatiboki. Izan ere, bazkideak ugaritu egin dira eta zerbitzu eskaintza asko zabaldu da geroztik.

Herritarren, udal ordezkarien, eragileen eta prentsaren aurrean aurkeztu zuen Geu Bek Garai jauregiko egoitza. Udalaren erabakiz, uriko hainbat taldek leku berria izango dute hemendik aurrera jauregian bertan eta Pinondon; Inurri eskaut taldeagaz konpartituko du Geu

Bek etxea. San Faustoko eskolatan izan dira orain arte elkarte honetako kideak, eta orain erdigunetik hurbilago daudela esan daiteke.

Koadrila eta familia

Hainbat urritasuneko lagunak batzen ditu elkarteak: Down sindromea, autismoa, garun paralisia, adimen atzerapena... hasieratik ez dute mugarik edo iragazkirik ipini sindromearen arabera. Guztiak elkarren artean konpontzen dira, eta koadrila polita eratu dute. Gurasoak eta begiraleak batuz, familia handia osatzen dutela azaldu digute.

Modu honetako arazoak dituztenek ikasketa prozesua amaitzean izan ohi dute aldake-

ta handiena bizimoduan. Izan ere, ordura arte lagun taldea edukitzen dute, baina hori amaituta, denbora librean zer egin ez dutela geratzen dira. Egoera hori bizi zuten orain dela zazpi urte Geu Beko sortzaileen seme-alabek; astialdi eskaintzarik ez zegoela konturatu ziren, eskaera egiten atez-ate joan zirenean. Hortik etorri zen elkartearen ideia, eta hortik baita ere paper piloia egitea eta abar. Sasoi hartako lanak, baina, emaitza onak eman ditu: 45 familia dira gaur egun Geu Beko bazkide.

Okupazioa eduki ala ez, arratsaldeetan eta asteburuetan elkartzeko eta jarduerak egiteko tokia daukate gazte hauek. Begiraleak alboan izaten dituzte, eta euren esker egin ahal izaten dituzte hainbat ekintza. Izan ere, egunerokotasunean dauden begirale batzuek soldata eduki arren, borondatea da lanaren oinarria. Esaterako, begiraleek lagunduta, beste edozein gazteren moduan gauez poteoan edo zinean ikusiko ditugu Geu Beko gazteak.

Integrazioa dute helburu, eta Garai jauregian landuko dute aurrerantzean. ■ A. U / M.O.

Eskoletatik jauregira pasatuta, erdigunetik hurbilago daude

Begiraleek lagunduta gauez poteoan edo zinean ikusiko ditugu



Carmen Gerrikagoitia • Ana Nieves

- Geu Beko gurasoak dira
- Hasieratik daude elkartean

“Beharrezko proiektua da”

Azken asteetan lan eta lan ibili dira Geu Beko gurasoak. Orokorrean, gustura daude leku berriagaz. Carmen eta Anagaz berba egin dugu.

Geu Beko sorrera prozesuan parte hartu zenuten.

Gure semeek 16 urte egin zituzte-nean, eskola amaitu eta zereginen gelara pasatu ziren. Beste ama batzuekin berba egiten hasi ginen. Izan ere, okupazio baterako aukera barik geratu behar ziren gure seme-alabak, eta zeozer pentsatu behar genuen. Durangon zegoen eskaintza oso urria zen. Gorabidek, esaterako, sindrome guztiak ez zituen kontuan hartzen. Udaleko eta Mankomunitateko ordezkariekin bildu, eta elkarte bat sortzeko gonbita egin ziguten, hori barik ez geneukalako eskaerarik egiterik. Alkartasuna astialdi elkartekoen ere egon ginen. Ekarpn itzela da boluntarioek egiten dutena.

7 urte joan dira dagoeneko...

Geu Be alternatiba da; beharrezko proiektua dela demostratu dela uste dugu. Seme-alabak oso gustura dabilta, eta hori gauza handia da.

“Espazioa ez dago banatuta guk gurako genukeen moduan”

Ze moduz eraikin berrian?

Leku ona da. Kaletik hurrago gaudela San Fauston baino. Han, erakina bera zaharkituta zegoen. Hemen, gauza batzuk konpondu behar izan ditugu, baina pozik

gaude. Dena dela, espazioa ez dago banatuta guk gurako genukeen moduan. Adibidez, aerobicerako aparteko leku bat ondo legoke, beste tailer batzuekin batera ez izateko.

Zelan egin dituzue lanak?

Neketsua izan da lekualdatzea, baina gazteek ondo pasatu dute. Denon artean banatu ditugu ardurak: instalazio elektrikoa, margoketa, garbiketara... modu asanblearioan egiten dugu lan.

Kalean ere badago zer egin...

Herrietan badoaz gauzak hobetzen, astiro-astiro. Baina hotel askotan, esaterako, arazoak izan ditugu. Asko ez daude egokituta, zertifikatuek halan esan arren.

“Faltsukeria bakoak dira”

Egunerokotasunean lau gazte daude lanean Geu Ben, baina guztira 12 bat boluntariok osatzen dute lan-taldea. Maria eta Lorenagaz izan gara.

Barikuan inauguratu zenuten lokal berria.

Ekitaldi polita izan zen. Elkarte eta jende ugari etorri zen, eta gazte batek idatzi bat irakurri zuen. Gurasoak emozionatu egin ziren; barrutik beste era batera bizitzen da kontua. Udalari eta beste askori eskerrak emateko antolatzen aurkezpen hori.

Zelako astialdi ekintzak egiten dituzue Geu Ben?

Astelehenetan futbola eta informatika izaten dituzte gazteek; martitzenetan aerobic eta logopedia; eguazten eta eguinetan eskulanak eta antzekoak; bari-kuetan aldizkari bat egiten dugu eta asteburuetan irteerak, poteoak... konbibentziak ere bai. Azken

txangoa Eurodisneyra izan da, gabonetan. Hala ere, dirulaguntzen esku dago egiten duguna: aurten gauza gutxiago egingo ditugu akaso.

“Euren maitasuna jasotzea da gauzarik onena”

Gazteek ere badute inizatiba.

Eguaztenetan gazteen batzordean batzen dira. Proposamenak lantzen dituzte gero asanbladan aurkezteko.

Elorrioren ere ibiltzen zarete...

Pisu bat daukagu bertan joan zen urtetik, eta asteburuetan joaten gara. Lau gazte eta bi begiralerentzako lekua dago. Etxeko lanetan murgiltzen dira, adibidez. Independenteko bizitzeko paktika bat da, eta oso esperientzia ona izan da.

Zelakoa da begirale lana? Zein da lanaren alde onena?

Euren maitasuna jasotzea da gauzarik onena. Oso pertsona argiak dira; faltsukeriarik bakoak. Musu bat eman gura dizutenean, benetan eman gura dizutelako da.

Gomendagarria, beraz...

Bai. Hemen ateak zabalik dituzte lagundu gura duenak. Begiraleak beti behar izaten dira.



Maria Goiena • Lorena Urkullu

- Geu Beko begiraleak dira
- Elorriarra eta iurretarra



ERITZIA >

Gutunak @

Abadiñoko osasun zerbitzuak badu alternatiba

Alkate honek behin eta berriro harritu eta duen irizpide faltak kezka sortzen dio edozeini. Gure baieztapena argitzen saiatuko gara.

Jakina da abadiñar gehienontzat datozen urteotan bizilagun berri asko izango ditugula herrian (nagusiki Muntsarazten egingo diren 400 etxebizitza berriak direla eta) eta ondorioz gutxiengo zerbitzuen eskaintza bermatu beharra dagoela lehenbailehen (osasun zerbitzua, hezkuntza zerbitzua, ur hornidura...). Aitzitik, osasun eta hezkuntza arazoak sortuak ditugu jada. Hala nola, Muntsaraz eta Zelaietako bizilagun batzuk Matienako osasun zentrorra etorri beharra edota Zelaieta-Muntsaratzeko 3 urteko ume batzuk Matienako eskolera bidali beharko ote diren kontua.

Gaiak duen garrantziaz jabetuta, afera honen nondik norakoa eta honen inguruan dugun iritzia azaldu nahi diegu gure herrikideei.

2008an, alkateak Osakidetza bideratutako proposamen baten berri eman zigun Hirigintza batzordean. Osakidetza zerbitzua handitu nahi zuen. Zelaietan mediku bat gehiago jarri eta Matienan anbulatorioa handitu beharra zeukan, beste mediku bat jarri, zerbitzu espezializatu batzuk eskaini eta bertatik administrazio lanak bideratzeko. Honetarako lokal gehiago eskatzen zizkion udaletxeari. Gerora, Zelaietan ez zela medikurik izango jakinarazi zitzaigun. Orduan ere, arestian aipatu ditugun erroka garrantzitsuen inguruan genuen kezka azalarazi genion gobernu taldeari.

Hala ere, Matienako zentroaren anpliazioak aurrera jarraitu zuen eta alkateak jubilatuen etxea Matienako eskola zaharren eraikinera eraman eta anbulatorioa beste hau zegoen norantzan zabaltzeko zuen asmoa agertu zigun. Guk, gure desadostasuna adierazi genion, gure iritziz hezkuntzari lotutako erabilera izan behar duelako eraikin honek. Hala ere, alkateak batzordearen diktamena bilatu baino lehen, prentsa berri erabakiaren berri eman zuen. Oposizio guztia aukera honen kontra agertu ginen, batzordean alternatibak proposatu (beste norantzan dauden lokalak bilatzea osasun zentroarentzat edo jubilatuen etxearentzat, edota arratsaldeko ordutegia zabaltzea beste herri batzuetan egiten den eran adibidez). Azkenean, EAJk alkatearen aukera babestea erabaki zuen, hau da, behin-behineko eran jubilatuen etxea eskola zaharretan jartzea hain zuzen ere.

Hala, 2010eko urtarrilaren 15ak sorpresak harrapatu gintuen. Izan ere, egun hartako "El Correo" egunkarian gure alkate jaunak Osakidetza herriko lehen mailako osasun zerbitzu guztia erietxe bakar baten lukeen eskariaren berri eman baitzigun, Matiena eta Zelaietako anbulatorioak desagertaraziz suposatzen dut.

Hau da, berriki lokalak eman dizkiogu Osakidetza eta orain erietxe berri bat egitea proposatzen diegu auzo zerbitzua desagertaraziz. Nork ulertu!

Gizon honen irizpide faltak ez dio inori ihes egiten eta berriro ere gobernu honen jarduteko modua salatzea beste erremediorik ez dugu. Ezin da inpulsoen menpe jardun eta hain izaera delikatu duen gai baten aurrean, funtsezkoa da herri programa argia izatea (uste argiekin).

Hartara, ezinbestean argitu nahi dugu zein izango den gure irizpidea gai honen aurrean, udalean defendatuko duguna: udalak lehen mailako osasun zerbitzu hurbil eta irisgarria bermatu behar du, bi zentroak zabalik mantenduz. Era berean, apustua zerbitzua auzo-inguru biek dituzten eta izango dituzten behar demografikoen neurria egokitzea izan behar da.

Berme hau eskaintzeko, ezinbestean Zelaietako zentroaren anpliazioa egin beharra dago. Udalari guztian dugun kupo soberakina betetzeko mediku berri bat etorriko den arren herrira (hiru goiz-erdi Zelaietan eta gainontzekoak Matienan egingo dituen), neurri honek epe motzeko irautzea du. Izan ere, urtebetean bi etxebizitza promozio berri bukatuko dira Zelaietan, eta zer esanik ez, Muntsaratzeko urbanizazio berriari begira geratzen bagatzaizkio.

Beraz epe horretan, alkateak ohituraz erabili ohi dituen hitz politikak alde batera utzi eta lehenasuna duten gaiei heldu behar diela uste dugu, zeregin handia dago egiteko eta denborak ez du etenik.

Igor Arkarazo, Maite Frades, Ramon Zarrabeitia eta Aritz Basauri
Abadiñoko zinegotziak (Abadiño)

"Auzorik auzo" ibilaldiko ibiltariei esker onez

Eskerrak ematera gatoz. Eskerrak eman, eguraldia lagun ez izan arren, "Auzorik auzo" ibilaldian parte hartu zenuten guztioi. Zuen babesari esker zabaldu eta indartu dugu gure urteroko ostera herriko hau. Zuei esker jarraitzen dugu aurrera egiten, inoiz baino ilusio handiagoarekin.

Eskerrak bada, denoi: Abadiñokoei, Durangokoei, Berrizkoei, Atxondokoei zein Iurretakoei. Eskerrak Gernikakoei, Bermeokoei, Igorrekoei zein Plentziakoei, eta aipatu gabe utzi ditugun guztiei...

Eskerrak asko.

Hamabi Harri auzo elkarte (Abadiño)

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

**Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta -
astekaria@anboto.org**

**Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bidali behar dira.**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Sei hankako mahaia



Niko Moreno
Ezker Abertzalea

Ohikoa

San Blas eguna ospatu dugu aste honetan. Eta Santa Agedaren koruek euren osteratxoa ere egin dabe. Urtero lez, ohikoa. Normala.

Badira berriz hain ohikoak izan behar ez luketenak, eta adibide ugari izan arren, bi nabarmenduko ditut; Euskal Presoen borrokaldi berria eta Ezker Abertzalearen barne eztabaidaren inguruko zurrumurru zein iritzi desitxuratzailak.

Ohiko deskomunikabideek berehala ekin zioten gai bi horiek aldrebesteari, eta hara, presoek kolektiboak gose grebari ekin eta non, Langraitzen diren batzuek Erakundea laga omen eta lerroak eta lerroak horri eskainita. Baina zenbatek gose grebari buruz zintzo informatu? Zergatik den? Non dauden presoak? Noiztik? Ze baldintzatan? Senideen egoeraz inoiz arduratu al dira?

Eta Ezker Abertzaleak burutu duen barne eztabaidaren lehenengo fase honetaz ere desinformazioa dugu nagusi; ETAREN "injerentziaz" batzuek, su artifizialak direla beste batzuek, EA jateko omen dela besteek, hurrengo udal hauteskundeak begira eginiko tranpa beste askok, ia "la buena" den besteren batek, eta horrela amaigabe ko zerranda osatu arte.

Bi kontu hauek txanpon bereko aldeak dira. Gure herriko kezka nagusienetarikoen erakusle izanda ere, une honetan iritzi sortzaile nagusiek beste interes batzuk dauzkate, eta egutegia balitzan, ohikoa bai baina zintzoa ez den ezinformazioari ekiten diote. Alboan beti izango dituzte interesatuak, nahi dutena baino entzuten ez duten horietarikoak. Ohikoak.

Honen aurrean geratzen zaiguna etengabeko borroka zintzoa da.

Hori ere ohikoa. Normala.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010ko otsailaren 5a - 9. urtea - 360 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:
Joseba Derteano.

Administrazioa:
Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur. **Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarieta. **Testu zuzentzailea:** Igor Elortza eta Garikoitz Bragado.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Dominguez eta Kepa Aginako.

SUDURRA SARTZEN

Esentziak eta usain naturalak



2010eko urtarrilaren 25etik otsailaren 14ra

Ezkurdi Udal Aretoa
Ezkurdi plaza, 10
Durango

Asteleheneretik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara
Larunbat eta igandeetan ere 12:00etatik 14:00etara

Eskola-faldeen bisitetarako, eskatu ordua 946 030 030
telefono-zenbakira (Pinondo Etxea) deituta

Bisita gidatuak, astearte eta ostegunetan,
18:00etatik 19:00etara
Larunbatetan, 12:00etatik 13:00etara



DURANGO
Udala • Ayuntamiento



Obra Social
Fundación "la Caixa"

AGENDA >

> ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Otsailaren 7an, 19:00etan

XABINAITOR

Xabinaitor lehen euskal superheroia San Agustinen izango da igandean. Patxi Gallegoren "Xabinaitor eta pololoen trilogia" komikitik egokitutako antzerki-muntaia aurkeztuko digute Goringo Taldekoek. Anjel Alkain eta Wazemank telebista saileko aktoreek abentura poliziakoa eskainiko digute umore lotsagabez. Hemen da Xabinaitor, barre eragiteko berezko dohana duen heroia

urtarrileko agenda

Otsailak 6-7-13-14 • Lurreta Txirindulari Elkarte
10:00etan. Ibilbide ezberdinak.

Otsailak 7-16 • Mikel Deuna kultur elkarte
7an, 17:00 Aita San Migel Plaza. Basokoipetsu eguna. Sua eta edariak.
14an, 16:30 Olaburu frontoian, erromeria Luhartz taldearekin

Otsailak 9-14 • Santa Apolonia jai batzordea
9an, Santa Apolonia jaiak. 12:00 Meza
14an, Santa Apolonia jaiak. 11:30 Meza, jarraian lurretako dantzariak eta luntxa

Otsailak 9-12-17-18 • Herri biblioteka
9an, 17:30 Bularretik mintzora
12an, Ipuin kontalaria. 17:30 (3-4 urte). 18:00 (5urte) gorakoentzat
17an, 19:00 Irakurleen txokoa (euskeraz) "Larrua hotz" Albert Sanchez Piñol
18an, 19:00 Irakurleen txokoa (gaztelerez) "Sostiene Pereira" Antonio Tabucchi

Otsailak 11 • Eguen zuri eguna
Goizez Maiztegi Herri Eskolako umeak kopla kantari

Otsailak 11 • Ibarretxe kultur etxea
19:00 Dokumentala "Inauteriak Euskadin". Jarraian sukaldaritza tailerreko tostaden dastaketa

Otsailak 16 • Inauteri eguna
10:00 Eskolako Komunitatearen jaialdia "Munduko dantzak". Jarraian txokolatada

IURRETAKO UDALA



OTSAILA

Otsailak 12

Musika: Humphrey Cao. Olakueta frontoia. 21:00

Otsailak 19

Antzerkia: Aitarekin Bidaia. Kultur Etxea. 22:00

Otsailak 26

Haur antzerkia: Ipuinez Ipuin. Kultur Etxea. 17:30

Lehiaketa

Emakumeen Nazioarteko Eguna. II. Kartel lehiaketa. Lanak otsailaren 16rako aurkeztu behar dira.

Eski irteera


Astunera martxoaren 12tik 14ra. Izena emateko epea otsailaren 11tik martxoaren 4ra, Berrizburu kiroldegian.

Inauteriak (otsailak 12-13)

- Otsailak 12 – Eskolaumeentzat ekitaldiak
- Otsailak 13 – Mozorro lehiaketa eta herri afaria. Txartelak otsailaren 10erako eraosi behar dira.

Erakusketak

- Otsailaren 14ra arte: Maite Gorrotxategiren "Urtaroak"
- Otsailaren 19tik "Bizitza minatuak" argazki erakusketa.



ANTZERKIA

BERRIZ

» "Uhartea ezezagunaren istorioa", otsailaren 5ean Berrizko kultur etxean 17:30ean

DURANGO

» "Xabinaitor" Otsailaren 7an, 19:00etan, San Agustinen Goringo taldearen eskutik

ERMUA

» "El pico de las viudas". Ermuko Antzerki tailerraren eskutik. Hilaren 5ean 22:15ean Lobiano Kultur Gunean.

BESTEAK

ABADIÑO

» **Magia** otsailaren 6an 18:00etan Txanporta kultur etxean

DURANGO

» **Gaztelurrutia ardoen aurkezpena, Mikel Garaizabal enologoagaz** Plateruenean otsailaren 11n 20:00etan



IURRETA

» **Iurreta Txirindulari** Elkarteak 75 kilometroko ibilbidea antolatatu du otsailaren 6 eta 7an. lurretan 10:00etan.

» **Basokoipetsu Eguna** otsailaren 7an. Aita San Migel Plazan 17:00etan. Sua eta edariak egongo dira.

ZALDIBAR

» **Txitxi-burruntzia** otsailaren 7an arratsaldeko 17:00etan hasita eskolako pilotalekuan. Edaria, txorizoa eta ogia Udalak jarriko ditu. **Makila zuk ekarri**

» **Santamarinazarren zuhaitzak landatuko dira** otsailaren 7an. Nahi dutenak hurbildu udaletxeko plazara 8:30ean

» **Gaztelekua** otsailaren 5etik 7ra arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. 12 eta 16 urte arteko gazteentzat.



» **Mendi irteera Saibira (946m)** otsailaren 7an goizeko 8:00etan Udaletxeko plazan.

DEIAK

DURANGO

» **Genero biolentziaren aurkako elkarretaratzea.** Eguenero, arratsaldeko 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Plataforma Feministak deituta.

» **Odola emoteko aukera,** eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

ERAKUSKETA

BERRIZ

» "Urtaroak" argazki erakusketa. Maite Gorrotxategiren lana otsailaren 14ra arte Kultur etxean

DURANGO

» "Sudurra sartzen. Esentziak eta usain naturalak" erakusketa otsailaren 14ra arte, Ezkurdi Plazan

» **Legazpiko Arkatza kultur elkartearen margo erakusketa.** Otsailaren 19ra arte, Andragunean.

ERMUA

» **Margo erakusketa. "Patologías número 2: el arco senil"** otsailaren 1etik 14ra Lobiano kultur gunean

ZORNOTZA

» "El silencio del ser" erakusketa. Koldo Etxebarriaren lana otsailaren 15era arte Zelaieta zentroan.

IKASTAROAK

ABADIÑO

» **Sexualitate tailerra,** barikuetan, 18:00etatik 21:00etara. Izena emateko Berdintasun Sailera jo (berdintasuna@abadiano.org).

DURANGO

» **Zaindu programaren baitan,** Durangoko adinekoen udal egoitzan: - **Mendekotasuna duten adinekoen zaintza lana,** otsailaren 10ean. Ordu eta erdiko saioak dira. - **Taldeko laguntza psikologikoa,** bizipenak elkarbanatzeko otsailaren 9an. Ordua: 17:30-19:30

» **Patinaje ikastaroa,** zapatuetan. 6 eta 15 urte bitartekoentzat, 16:00etatik 17:30etara. Nagusien-

tzat, 17:30etik 19:00etara, Kurutzia Ikastolan. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

» **Dantza ikastaroa,** martitzen eta egueneran. Gaueko 21:00etatik 22:00etara, Landako kiroldegian izango da. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

» **Streching ikastaroa,** barikuetan, 20:00etatik 21:00etara, Landako kiroldegian. (Informazio gehiago: 94 603 0031 telefonoan).

» **Euskal dantzen ikastaroa.** Martitzenero, iluntzeko 19:30etik 21:00etara, Plateruena Kafe Antzokian, AIKO taldearen eskutik.

» **Adinekoentzako denetariako ikastaroak: Landare kontserba eta mermelada ikastaroa, adimen emozionala, etxeko kontabilitatea (Excel), argazkiak moldatzeko ikastaroa, landare osasungarriak eta elikadurari buruzko ikastaroa, barreterapia eta adinari buruzko ikastaroa.** Izen-emateak Durangoko adinekoen udal egoitzan.

» **Tailerra: Eleberri Beltza.** Apirila bitartean izango dira eskolak. Hamabost egunean behingo maiztasunagaz, Juana Lopez de Muniain-en eskutik. Izena emateko Liburutegira gerturatu.

IPUINAK

ERMUA

» **Haurrentzako Ipuin kontaketa** Otsailaren 6an 17:30etan Udal liburutegian

JAIK

ABADIÑO

San Blas jaiak

» **Kontzertuak Gaztetxean** otsailaren 5ean 20:00etan. Last revels, Against the rapist, Erasoka, Undeafated. 22:00etan Pixontxis, Delirium Tren Ez, Tribute to RIP

» **Kontzertuak Txosnagunean**



otsailaren 6an gaueko 23:00etan Habeas Corpus eta Trikizio

BERRIZ

Inauteriak

» Inauterietako afairako txartelak salgai otsailaren 10era arte Etxebarría estankoa eta Ama-Lur liburudenda.

ERMUA

Inauteriak

» **Eguren zuri - Oilarraren jokoa** alboka musika eskolako txistulariek lagundurik. Otsailaren 11an 15:00etan Orbe kardinalaren plazan. - **Haurrentzako diskoteka** otsailaren 11n 17:00etan Orbe kardinalaren plazan



LEHIAKETA

ABADIÑO

» **San Blas etako Argazki Txapelketa.** Gaia: San Blasak 2010. Lanak aurkezteko epea: otsailaren 12ko 20:00ak. Errota eta Txanporta kultur etxeetan aurkeztu daitezke argazkiak. 1.saria: 400 euro. 2.saria: 250 euro.

» **Arkume errearen XXII. txapelketa izen emateko epea luzatu da: Otsailaren 11ra arte.** Interesatuak Txanportako kultura-etxera joan beharko du izena ematera. Saria: Lehenak 100 euro, bigarrenak 60 eta hirugarrenak 40 euro. Txapelketa 13an egingo da eta ondoren herri "arkume-jana" egingo da 350 bat lagunentzat.

BERRIZ

» **"Emakumeen Nazioarteko Eguneko II. Kartel Lehiaketa.** Gaia: sexualitatea. Lanak otsailaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira Berrizko Udala Erregistroan. Saria: 300 euro. DBHko ikasleen artean be zabalduko da lehiaketa. Kategoria horretako saria argazki kamera digital bat izango da

IKUS-ENTZUN

DURANGO

» **"Zinegoak"** The other war (L) Glioblastom (D'INVERNO (Gt) San Agustinen otsailaren 9an 20:15ean

IURRETA

» **"Inauteriak Euskadin"** dokumentala hilaren 11an, 19:00etan Ibarretxe Kultur etxean. - Jarraian sukaldaritza tailerreko ikasleek egindako **tostaden dastaketa** egongo da

ELORRIO

» **Film dokumentala: "Aitaren bekatuak"** otsailaren 11n 19:30ean Elorrioko Iturri kultur etxean

ZORNOTZA

» **Film laburrak "Kimuak 08"** otsailaren 5ean 21:00etan Zornotza aretoan. Asàmara, Autorretrato, Berbaoc, Cotton Candy, On the line, El tiempo prestado, Tras los visillos, yo solo miro. Zornotza aretoan 21:00etan

MUSIKA

DURANGO

» **Gau elektronikoaren I. urteurrena.** Charles Ramirez, DJ Patt... Antzokian otsailaren 5ean 22:00etan.

» **Karnabaletako kontzertuak** hilaren 11an 18:00etan Bartolome Ertzillan

ZINEKLUBA

DURANGO


» **"El Consul de Sodoma"** otsailaren 11an Zugaza zineman 20:30ean

ERMUA

» **Zine erotikoren zikloaren barruan "No mires para abajo"** otsailaren 11an 19:00etan eta 21:30ean Lobiano Kultur gunean

ZORNOTZA

» **"Mi vecino Totoro"** otsailaren 9an 20:00etan Zornotza aretoan



Otsailaren 6an, 18:00etan

ASIER KIDAM-EN TXIN-TXIN MAGIKOA

Asier Kidam gasteiztarrek muntaia berria dakar denok aho zabalik uzteko. Magia eta umorea nahasten ditu Txin-txin magikoan. Txiki-bikitatik, hiru urte zituenetik, gustukoa du magiaren mundua, mago batek belarririk txanpon bat atera zionetik. Orduetik urteak eman ditu magiaren sekretuak ikasten, "unibertsitatek ez dagoenez, beste lagun magoek azaldu behar dizikizute sekretuak". Magia gertu-gertutik ikusteko aukera larunbatean Abadiño-ko Txanporta Kultur etxean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Tiana y el sapo

Zuzendaria: Ron Clements y John Musker.
barikua 5: 18:00/20:30
zapateria 6: 17:00/19:30
22:30
domeka 7: 20:00/22:30
astelehena 8: 17:00/19:30
martitzena 9: 20:00



ELORRIO

Arriola antzokia

Celda 211

Zuzendaria: Daniel Monzon
zapateria 6: 22:30
domeka 7: 20:00
astelehena 8: 20:00



Umeendako zinema

Lluvia de Albóndigas

Zuzendaria: Philip Lord
domeka 7: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa

Todos están bien

Zuzendaria: Kirk Jones
zapateria 6: 22:30
domeka 7: 20:00
astelehena 8: 20:00



Umeendako zinema

Alvin y las ardillas 2

Zuzendaria: Betty Thomas
domeka 7: 17:30

BOTIKAK

- Barikua, 5**
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
- Zapateria, 6**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Etorbidea 19 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Navarro/ Balenciaga/ Unamunzaga/ Sagastizabal/De Diego/ Campillo/ SanRoma/(Durango)
• Deleuze Jimenez (Erreka 6 - Elorrio)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
09:00-22:00
• Lopez de Aretxaga (Torresolo, nº 4-Abadiño)
- Domeka, 7**
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
- Astelehena, 8**
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
- Martitzena, 9**
09:00-09:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
• Etxebarría (Montebideo 2 - Durango)
- Eguaztena, 10**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
- Eguena, 11**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak.....112**
- DYA94 620 28 00**
- Gurutze Gorria94 681 09 49**
- Osakidetza94 600 72 00**
- Ertzaintza94 466 93 00**
- Suhiltzaileak112**
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
- Durango94 681 02 32
- Bizkaibus94 448 40 80
- Pesa902 10 12 10
- Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
- Abadiño946 814 470
- Matienea606 459 988
- Durango Geltokia.....946 811 001
- Goco Tour946 202 860
- Tele Taxi944 102 121
- Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
- Elorrio Geltokia946 820 040
- J.L. Uriarte670 402 002
- I. Estebez670 678 273
- M Galeano.....946 582 854
- Iurreta946 201 565
- Taxi auzunea688 618 690
- UDALAK**
- Abadiño94 621 55 30
- Atxondo94 682 10 09
- Berriz94 682 45 84
- Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
- Garai94 681 63 93
- Iurreta94 620 12 00
- Izurtza94 681 35 48
- Mallabia943 17 14 61
- Mañaria94 681 89 98
- Otxandio945 45 00 20
- Zaldibar94 682 70 16
- UDALTZAINGOAK**
- Abadiño94 621 55 33
- Berriz94 682 40 36
- Durango94 603 00 10
- Elorrio94 682 02 18
- Iurreta94 620 08 88
- BESTELAKOAK**
- Arriola94 658 31 92
- San Agustin94 603 00 21
- Zornotza Aretoa94 630 01 68
- Gazte informazioa 94 603 00 30
- Txanporta KE94 620 36 47
- Errota KE94 466 94 16
- Gorabide94 681 24 35
- Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
- Nekazal bulegoa94 681 15 20
- Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
- Butanoa (UME).....94 681 08 77
- Araztegia94 620 28 00
- Foru Ogasuna.....94 681 07 42
- INEM Durango94 681 12 96
- Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
- Epaitegiak.....94 603 00 51

EGURALDIA

- 14° BARIKUA** ☁
- Giro nahasia izango dugu. Zerua oso hodeitsu egongo da eta zaparradak botako ditu, hala ere tarteka eguzkia ikusiko dugu. Mendebaldeko haize bizia ibiliko da, batez ere goizeko lehen orduetan.
- 15° ZAPATUA** ☁
- Zerua lainotuta egongo da eta euri txikia egingo du. Ipar-mendebaldeko haizeak bolada gogor batzuekin joko du. Temperatura maximoetan aldaketarik ez da egongo, minimoak goranzko joerarekin.
- 21° DOMEKA** ☁
- 13° ASTELEHENA** ☁
- 13° MARTITZENA** ☁

Izan zu zeu kazetari
eta argazkilari
Zure auzoko jaiak direla?
Ekimen bat prestatu duzuela?
Mendira joan eta paisai zoragarriak
ikusituzula?

Bidali zure argazkiak eta gure
WEBean izango dituzu ikusgai
Nahi baduzu bidali albistexoa
argazkiarekin batera

argazkitekak

berria



Bidali zure argazkiak: astekaria@anboto.org helbide elektronikora



anboto
komunikabideak

dimentsiotan



www.anboto.org

KIROLAK >



Lana eta dedikazioa eskertuz

Euskal Kirol Federazioen Batasunak EAeko federazio bakoitzeko lagun bat saritu du oraintsu Donostiako Kurasaalean egindako II. Euskal Kirolen Galan. Federazio bakoitzak ordezkatzeko lana eskertzea izan dute helburu. Durangaldeko pertsona biri eman diete saria: Ricardo Aragón durangarrari errugbian eta Maider Unda oletarrari borroka librean.

Saridunak federazioek eurek proposatutakoak dira. Euskadiko Rugby Federazioak Ricardo Aragon (Durango, 1959) proposatu zuen errugbiari eta federazioari urteetan eskaini dien dedikazioarengatik. Aragón Bilboko Unibertsitatean

hasi zen errugbian jokatzen. 1982an ikasketak amaitu eta Durangora bueltatu zenean, Erorio Rugby Taldean jokatu zuen sei urtean. 1989an Durango Rugby Taldera joan zen eta hantxe amaitu zuen jokalaria legez bere ibilbidea 1995ean. 1997tik 2009ra federazioko epailea izan zen. Horrekin batera, 1997an Euskadiko Selektzio-ko mediku moduan laguntzen hasi zen hainbat kategoriatan.

Maider Unda saritzea Euskadiko Borroka eta Sambo Federazioak proposatu du. Undak (Oletan jaio eta Otxandion bizi da, 1977) borroka librean duen palmaresa benetan oparoa da. Irabazi daitekeen ia guztia irabazi du bere ibilbide

profesionalean. Besteak beste, hamaika bider izan da Espainiako Txapeldun eta diploma olinpikoa irabazi zuen 2008an Pekinen izandako Joko Olinpikoe-tan. Bere lorpenez gainera, borroka librean Euskal Herri osoan ezagutaraztea ere lortu du. Zoritxarrez, beste konpromiso batzuk medio, ezin izan zuen saria bertan jaso. ■J.D.

Ricardo Aragón eta Maider Unda saritu dituzte Euskal Kirolen Galan

24 Ametsa zena gorpuzten ari da

Durangoko Kulturala hirugarren dago sailkapenean. Beasainen kontrako garaipenak play-off postuetan jarri du. Hurrengo bi neurketak etxetik kanpora jokatuko ditu.

25 Pedro Horrilloekin solasean

Erretiroa iragarri eta denboratxo batera Pedro Horrillo-gaz berba egin dugu bere sentipenak jakiteko. Txirindulari ibilbideko unerik onenak ere erreparasatu ditugu.

Kulturalak hirugarren postua defendatuko du Azpeitian

Beasainek eta Zamudiok konpromiso zailagoak dituzte asteburuan



Partidu intentsoa jokatu zuten Durangoko Kulturalak eta Beasainek. Ana Dominguez

Klubak gaur arte behin eta berriro azpimarratu duen helburua asteburu honetan gauzatu daiteke. Lagun Onaki irabaziz gero, mailari eusteko aurreikusten diren 42 puntuak gaindituko lituzke. Hala ere, zaleek aspaldi baztertu zuten diskurtso hori eta jomuga handiagoe-tan ipini dute itxaropena. Izan ere, gaur Kulturala hirugarren dago sailkapenean.

Datozen partidu biak etxetik kanpora jokatuko ditu. Bihar Lagun Onak bisitatuko du hirugarren postuaren defentsan. Azpeitiarrak jaitsieratik hurbil daude eta beharrezkoak dituzte hiru puntuak. Hilaren 13an Baskoniaren zelaian jokatuko dute. Basauriko taldea sailkapenaren erdian dago, baina goitik behetik baino hurrago. Datu azpima-

Mailari eusteko behar diren puntuak asteburuan eskuratu ditzake Kulturalak

Datozen lehia biak etxetik kanpora dituzte; hurrengo Zamudio hartuko dute etxean

rragarri bat: oraindik ez dute etxean galdu; zortzi garaipen eta bost berdinketa.

Tabirarako itzulera oporretatik lanerako buelta baino gogorragoa izango da. Zamudio hartuko dute; gaur egun laugarren dagoen taldea.

Bestalde, Zamudiok eta Beasainek (bosgarren dago) konpromiso zailak dituzte asteburu honetan. Beasainek Baskonia hartuko du eta Zamudiok orpoz orpo darraion Gernikari egingo dio bisita.

Joan zen astean Kulturalak 1-0 menderatu zuen Beasain. Euriak erabat baldintzatu zuen lehia, baina benetan partidu gustagarria jokatu zuten; intentsoa, borrokatua eta betebetekoa. Unai Calvoren golak eman zien garaipena. ■ J.D.

Derbiak lasaitasuna ekarri dio Larrasoloetari

Klubaren arteko xake txapelketak aurrera darrai. Euskal Ligan Abadiñok galdu egin zuen Orvina Bren kontra, baina 1,5 puntu batu zituen, eta igoera zail duen arren, mailari eusteko moduan izango dela dirudi.

Goren Mailan Larrasoloetak 3-1 irabazi zion Zaldi Baltzari eskualdeko derbian. Horrela, durangarrak azken postuetatik urrundu egin dira; elorriarrei, aldiz, asko zaildu zaie mailari eustea.

Lehen Erregionalean Larrasoloeta Bk galdu egin zuen

Sestaoren kontra (3-1). Sestao talde indartsua den arren, berdinketa lortzea zuten helburu. Hurrengo jardunaldi bietan puntuak behar dituzte, liga amaiera oso gogorra izango dute eta.

Bigarren Erregionalean Zaldi Baltza Bk 3-1 irabazi zion Abadiñori derbian. Larrasoloetak, aldiz, jipoitu egin zuen Erandio C (0,5-3,5).

Azkenik, Hirugarren Erregionalean Zaldi Baltza Dk eta Larrasoloeta Dk galdu egin zuten. ■ J.D.

San Blas txapelketako finalak gaur, trinketean

Gaur 19:00etatik aurrera, San Blas Trinkete Txapelketako finalak jokatuko dituzte. Nagusien mailan Gandiaga II.ak eta Martin II.ak Unai Martinen (Uriarteren ordezkari) eta Ugarteren kontra jokatu dute. Bikote biak uste baino errazago saikatu dira finalerako. Gandiaga II.ak eta Martin II.ak, esaterako, 40-23 menderatu zituzten finalerdietan Gonzalez eta I. Gandiaga.

Promesen mailan Garaizabalek eta Etxebarriak Alustizaren

Abadiñok hitzordu bikoitza du sokatiran

Bihar 560 kilora arteko lehenengo jardunaldia jokatu dute Ezpeletan (Lapurdi). Abadiñok talde bakarra eramango du. Hurrengo jardunaldi biak Iruritan eta Arrigorriagan jokatuko dituzte.

Igandean 640 kilora arteko finala jokatu dute lau taldeek Zeberion. Abadiñok A eta B taldeak eramango ditu. Pisu honetan Abadiño favorito argia da.

Bestalde, joan zen zapatuan, 600 kilora arteko txapela irabazi zuten Aramaion. Aurtengo laugarren txapela dute.

Bihar 19:00etan hasiko da promesen mailako finala; ondoren nagusiek jokatu dute

Agustin Alkorta
• Futbol entrenatzailea



Boxing Day

Zale askok bezala, maite dut futbol ingelesa. Beti jarraitu ditut partiduak telebistaren bidez eta oraingoan berobero nengoen abioian sartu eta zuzenean partiduren bat ikusteko. Eta amets bat betetzeko ere bai.

Abenduaren 26an, Boxing Day ospatzen dute ingelesek, eta zaleak familia osoarekin joaten dira futbol zelaira, ohitura bezala. Ez zen egun aproposena sarreraren bategaz jabetzeko... baina lortu nituen: West Ham-eko Upton Park estadioan nire zain zeuden. Gaitzena egin eta gero, maleta bete eta abante!

Partidua: West Ham-Portsmouth. Hori gutxiengoa zen, benetan; sailkapeneko azkenengo talde biak ziren aurrez aurre; hemen nahiko ezezagunak diren talde bi. Puntu arraro bat zeukan denak: tokia (atzerria), partiduaren ordua (13:00), zaleak, segurtasuneko langileen txaketa fosforito horiek... dena. Inguruetan jende pilo bat zebilen harantz eta honantz baina giroa hotza zen. Adibide bezala, taldeetako autobusei, etxekoari ere bai, zaleek ez zieten jaramonik egin. Horrek nabarmen deitu zidan arreta eta hemen ikasi egin beharko genuke apur bat. Eurentzako, futbolariak ez dira jaungoikoak, guretzako bezala.

Baina barruko giroa kristona zen. Zaleen kantuak, erritmoa, kornerra gola izango balitz legez ospatzea... dena edukazio galantez gainera. Zelaiko erritmoa kutsatu egiten da harmailetan. Esperientzia polita. Desberdina. Hurrengo urtean errepikatu egingo dut, dudarik gabe.

Adituarentxokoa

Agenda

- FUTBOLA**
LEHEN ERREGIONALA
Iurretako - Etxebarri
Zapatuan, 18:00etan,
Larrakozelain
- Zaldia - Berriatuko**
Zapatuan, 16:30ean,
Solobarrian
- BIGARREN ERREGIONALA**
(gizonak)
Abadiño - Amorebieta B
Domekan, 16:00etan, Astolan
- HIRUGARREN ERREGIONALA**
Berriz B - Derio B
Domekan, 11:30ean,
Berrizburun
- Elorrio B - Itugarpe**
Zapatuan, 18:00etan,
Eleizalden
- BIGARREN ERREGIONALA**
(emakumeak)
Elorrio - Berrio Otxoa B
Zapatuan, 16:00etan,
Eleizalden

- ARETO FUTBOLA**
OHOREZKO A MAILA
Sasikoa - Sestao
Domekan, 12:30ean,
Landako kiroldegian
- OHOREZKO B MAILA**
Elorrioko - Concepto C.
Zapatuan, 18:00etan,
Elorrioko kiroldegian
- Sasikoa - Ortziri**
Zapatuan, 19:00etan,
Landako kiroldegian

- SASKIBALOA**
LEHEN MAILA (gizonak)
Tabirako - San Ignacio
Zapatuan, 17:00etan,
Landako kiroldegian

- ERRUGIA**
EUSKAL LIGA
Elorrio - Bera Bera B
Zapatuan, 16:00etan,
Elorrioko errugbi zelaian

“Batzuetan iruditzen zait helikopteroan eri eramane zutena ez nintzela ni izan”

Errehabilitazioan dihardu oraindik Pedro Horrillo ermuarrak

Kiolarien ibilbide profesionalak aitzakia bat du: nahi baino arinago amaitzen dela. Behin adin batera iritsita —denek egiten duten moduan— Pedro Horrillok (35 urte, Ermua) ere bere kabalak eginda zituen: “Beste pare bat urte”, kalkulatu zuen. 17 urteko ibilbide oparoaren kolofoi behar zuen urtea, denetan beltzena bihurtu zuen Giroko amildegi batek. Baina erorketak ezin du lausotu txirrindulari eman dion guztia: korritu dituen 13 itzuli handiak (zortzi Vuelta, hiru Giro eta Tour bi), Munduko Txapelketa biak, irabazi dituen bederatzita etapak eta han eta hemen utzi dituen gomutak eta bizipenak.

Erorketaren uneko ezer ez du gogoratzen eta horrek asko lagundu ei dio errehabilitazioan: “Batzuetan iruditzen zait helikopteroan eri zeramatena ez nintzela ni izan”, aitortu du.

Erori zenetik bere erretiroa jakinarazi zuen arte joandako ia bederatzita hilabeteak berba bitan laburbildu daitezke: lana eta esperantza. “Nik hasieratik asimilatu nuen bueltatzea ezinezkoa izango zela. Baina errehabilitazio prozesuan medikuek aurreikusitako baino aurrerapen handiagoak egiten nituen. Beraz, amesten hasi nintzen. Hala ere, itzulera posiblea harra-

patzeko zorian egon nintzen txori bat legez ikusten dut eta ez eskuetatik ihes egin zidan txori baten moduan”.

Rabobanken eskaintzari uko egitea erabaki zaila izan zen, baina, “argi nuen berme osoagaz ez bazen ez nintzela

“Ez dut arazorik bizitza normala egiteko. Ahal dudanean Anbotora igotzeko gogoz nago”

“Baditut eskaintza batzuk, baina proiektu guztiak lasaitasunez aztertu gura ditut”

bueltatuko; eta banekien ehuneko ehuna ezingo nuela eman”.

Txirrindularitza profesionala utzi izanak ez du esan nahi bizikleta baztertu duenik. Errehabilitazioak hala exijitzen diolako eta gustuko duelako, astegunetan egunero ibiltzen da pedalei era-

giten. Oro har, errehabilitazio prozesuagaz gustura dago: “Oraindik, posible denetan eskaierak ekidin eta igogailua hartzen dut, baina bizimodu normala egiteko ez dut inolako eragozpenik. Areago, oraindik jaitzieretan min ematen dit, baina ahal dudanean Anbotora igotzeko gogoz nago”.

Etorkizuna patxadaz hartzen

Profesional zela etorkizunari buruzko gogoetekin ez obsesionatzea erabaki zuen eta oraindik berdin pentsatzen du: “Hainbat eskaintza jaso ditut txirrindularitza mundutik eta handik kanpora. Rabobankek talde teknikoaren parte izatea eskaini dit eta El Pais egunkariak Tourreko korreponsal legez joatea, kazetariari laguntzen. Lasaitasunez aztertu nahi ditut eskaintza guztiak. Orain proiektuak entzuten eta orientatzen nabil”.

Aita lanera bueltatu dadin presarik ez dutenak seme-alabak dira: “Lehen bat-batean luzaroan desagertzen nintzen... Orain denbora gehiago ematen dut eurekin. Txikia ume bat da oraindik, baina besteak lau urte ditu eta gertatu zaidanaz kontziente da. Pozik daude. Jakina, aitak amak baino permisiboagoak izaten dira-eta!”. ■J.D.



Zazpi bat urte daramatza Abadiñon bizitzen ermuarrak. I.Gorriti

> GOGORATZEKO HIRU UNE

Profesionaltako lehenengo garaipena Portugalen

Portugalgo Itzulian irabazi zuen lehenengoz 2000. urtean. Vitalicio taldea desagertzera zihoan eta ordura arte, taldeko txirrindularia izan bazen ere, “eskaparaterako garaipen bat behar nuela ohartu nintzen”. Etapa bitan gutxiatik ez zuen irabazi. “Javier Minguezek esan zidan horietan izan zirela nire aukerak eta ez nuela asmatu”. Ez zuen etsi. Bero ikaragarriko etapa batean ihesaldian sartu eta Lopez Uriarte euskaldunari gailendu zitzaion: “Garaipen harekin neuk ere irabazi nezakeela sinistu nuen eta beste talde batzuetarako ateak ireki zizkidan”.



Paris-Roubeaux edo amateur baten ametsa

“Amateurra nintzanean Paris-Roubeaux korritzea amesten nuen. Lasterketa hori intentsitate handiz bizi izan dut beti”. Profesionaltako lehenengo urtean parte hartu eta lasterketa amaitzea lortu zuen: “Hori debutante batentzat irabaztea lakoxea da”. Lasterketa horrekiko laudorioak bestetik ez ditu ermuarrak: “Magikoa da. Lasterketa amaitu eta segituan hurrengo urtekoan pentsatzen duzu”. Bera izan zen Juan Antonio Flechari (bigarren geratua da) Paris-Roubeauxekiko zaletasuna piztu ziona: “Beti eskerrak eman dizkit horregatik”.



Cor Vos

“Nire azken garaipen handia izan zen: bizirik irtetea”


Nahiago zukeen beste uneren bat aukeratu, baina zelan ekidin —bere ibilbideko unerik esanguratsuenak gogoratzen ari garelarik— txirrindularitza profesionala uztera behartu duen erorketa madarikatua? “Une horrek gauza on bakarra du, ni agertzen naizen bideorik edo argazkirik ez dagoela. Esaterako, irudi batzuetan saku gorri bati lotuta helikopteroa igotzen ari diren zauritu bat ageri da, baina imajina urrunekoa denez, ez da nabari ni naizenik. Horrek eta istripuaren gomutarik ez izateak errehabilitazioa hobea eta arinagoa izan dadin lagun dit”.



R. Bettini



LAUHANKA >



Digestio geldoak ditu, beraz, zuntz asko jan behar du. Kantitate gutxi jaten du, baina askotan.

Untxiari ilea urtean bi aldiz jausten zaio, baina ez zaio moztu behar, babesa ematen dio eta

Hasieran konfiantza hartzea kostatzen zaie, eta hitz egitea komeni da

Untxi nanoak etxerako tamaina aproposa dauka

Oinarrizko zaintzak, elikadura kontrolatzea eta mimoak besterik ez ditu behar gustura egoteko

Untxia baserriko animalia izatetik, gaur egun familian beste kide bat izatera pasatu da hainbat etxetan. Untxi nanoak tamaina aproposa dauka etxean bizitzeko; 800 gramotik kilo bat eta hirurehun gramora heldu daiteke. Ingalaterran sortutakoa da eta hiru arraza daude: Polish, Dwarf Hotot eta Netherland Dwarf.

Ezaugarriak

Untxi nanoak oinarrizko zaintzak behar ditu, eta txakurrak baino independenteagoa da, ez da kalera atera behar eta. Gainera, gutxitan gaixotzen da. Hori guztia dela eta maskota aproposa izan daiteke familia osoarentzat. Untxia, oro har, animalia argia da, zaintzeko erraza, oso garbia eta isila. Hori bai, hasieran gehienei kostatu egiten zaie konfiantza hartzea lotsatiak dira eta. Beraz, untxi nano bat eros-

ten baduzu komenigarria da lehen egunetan ahalik eta gehienetan kaiolatik ateratzea, lekua ezagutu dezan. Hitz egitea ere egokia da, ezagutzen joateko eta konfiantza hartzeko. Pazientziak, dedikazioz eta maitasunez hainbat gauza ikas ditzake, hala nola, pertsona bati jarraitzen, hainbat altueratik salto egiten hala agintzen zaionean, eta kaka eta txiza leku berean egiten, katuek egiten duten antzera.

Untxiak beldurtiak direla esaten da sarritan, baina bizirapen kontua da. Uzkuritu, belarriak atzerantz ipini eta dardaka jarzeten dira.

Elikadura

Animalia honen berezitasun bat digestio geldoak dituela da, beraz, kantitate gutxi jaten du, baina askotan. Untxi batek egu-

nean 80 aldiz ere jan dezake. Ondo zaintzeko beharrezkoa da elikadura egokia emateaz arduratzea. Untxiaren dietan osagai nagusiak belarra, bazka lehorra, hezurrik gabeko fruta, artoa eta ogi gogorra dira. Belarrak digestioa egiten laguntzen dio eta haginak limatzeko onuragarria da. Ur asko edan behar du: hiru edo bost litro. Haginak sarritan begiratu behar zaizkio arazoren bat badu azkar igartzeko. Untxiari ilea urtean birritan jausten zaio: udaberrian eta neguan. Ez zaio ilea moztu behar, kanpoko faktoreen aurrean babesa ematen dio eta. Bibotea, berriz, orientatzeko erabiltzen du.

Kaiola ondo aireztatuta egon behar da, eta 10-20 graduan, beroa ez baitute aguantatzen. Ezinbestekoa da kaiola garbi mantentzea higiegi neurriak bete eta ondo egoteko.

Nire txakurra atzeko hanketatik jausten da eta displasia duela esan didate. Zer dauka zehatz mehatz? Maite (Zaldibar).

Displasia hitzak "artikulazio txarra" esan nahi du. Eta kasu honetan aldakako artikulazioan malformazioa daukalako gertatzen da hori. Askotan herentziazko gaixotasuna da. Aldakako displasiak progresiboki egiten du kalte eta artrosi handia eragin dezake, eta ondorioz mina. Gaixotasun hau osatzeko botikarik ez dago, baina eragina moteldu daiteke pisua kontrolatuz, ariketa eginez, antiinflamatorioekin eta kontroprotektoreekin.

Bidali zuen galderak helbide honetara (izena eta herria ipinita):

astekaria@anboto.org



Alberto Cimarro
Etorbide Albaitari klinika

Gremioen gida



Iturgintza

Arlandi ITURGINTZA

Klimatizazioa
Kalefakzioa
Iturgintza
Gasa

Arlandi 16 - behea, 3. aldea
Sakelekoa: 907 24 58 54
Faxa: 94 681 61 56
Iurretza

Balmendun
Instalazioak

Elektronika

URBASA Elektronika

SALMENTA ETA KONPONKETA - TV - SONIDUA - HURDIA - BIRATIA
KONJUNTAGAZIA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITU BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic

Televis
Instalazioak
Ofiziala

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurretza • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Argiztapena

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Arotzeria

EGUIA S.L.

AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653



Tobira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinenaegui.com

Iturgintza

grebioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Lorazaintza

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutx 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Eraikuntza

arlax

Baserriak eta etxebizitzak
berriztatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Barrualdea diseinatzea

Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B Sakelekoa: 615 77 91 70
DURANGO 605 77 03 57

Ubide

iturgintza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

Pintura

Ibai Urien Madrazo

Pintura
apalgarria
eta industrialia

Pinturas Sagasta

Sagasta auzoa
Anbe Goikoa
48220 ABADINO
Bizkaia
Tel.: 629 143 944

Garbiketak

AZKARGI
GARBIKETAK

Rubegia eta komunitate mantentzeak
Ura eta garbiketak
Krisialak eta alfarak

Goietan, 46 - 2. esk. - Elorrio - 615 79 12 15

Informatika

elaia IT

Information Technology S.L.

ZURE SISTEMA INFORMATIKOA
EZ DA UMEEN JOLASA


- TIC aholkularitza
- Ekipoen mantentze eta konfigurazioak
- Konfigurazio eta instalazioak
- Mantentzeak
- Formazioak
- LOPO/LSI adaptazioak

www.elaia.es • e-mail: info@elaia.es
Tel.: 94 640 98 98

IRAGARKIAK

LANA

- Eskaerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**
- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**
- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi
- BESTEAK**
- Berba egin
- Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org edo
- Deitu 94 681 65 58 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

LANA

ESKAERAK

Esperientziadun ile-apaintzailea behar da Durangon. Tel.: 650.847.466

Matienan tabernaria behar da jornada erdirako. Esperientzia badauka, hobe. Tel.: 94 620 37 62

Osasun arloko produktuen banaketan lan egiteko pertsona bat behar dugu. Beharrezkoa da ekimen eta komunikazio gaitasuna izatea eta gida-baimena izatea. Baloratuko da: osasun arloko aformazioa, antzeko lanetan esperientzia eta trebakuntza arloko esperientzia. Bidali CVak urtarrilaren 22a baino lehen hona: info.ksegur@gmail.com

Durangon bizi den emakume bat behar da umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 657 772 050

Zornotza. Klinikako teknikari laguntzailea behar da nagusien erresidentzia batean asteburuetan lan egiteko. Derrigorra da formazioa edo esperientzia izatea eta kotxe propioa izatea. Erreferentzia: 67. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Merkataritzako agentea behar da bezeroak lortu eta harremanetarako. Derrigorra da esperientzia izatea komertzial moduan eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 128. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Abadiño. Ile apaintzailea behar da postuak eskatzen dituen lanak betetzeko: orraztu, moztu,depilatu... Beharrezkoa da: ile-apaintzaile bezala urtebeteko esperientzia izatea, pertsona arduratsua eta inizatibaduna izatea eta Durangaldean bizitzea. Hasieran 3-4 hilabeterako, eta luzatzeko aukera. Erreferentzia: 315. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Kontabilitateko administraria behar da deiak jasotzeko eta ordainketen gestioa eta kontabilitatea eramateko. Beharrezkoa: LHII administrazio ikasketak edukitzea, kontabilitatean ezagutza izatea, %33ko urritasuna izatea, kotxea edukitzea. euskara jakitea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 364. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da aseguruaren informazioa eta salmentarako. Derrigorra da heziketa ertaina izatea, ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.455. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

ESKAITZAK

Elorrioko neska euskaldun eta arduratsua, goizetan 11:00etara bitartean umeak eskolara eramane edo zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia handikoa. Tel.: 645 723 401

Emakume nagusia pertsona edade-tuak zaintzeko prest Tel.: 699 745 723 (Ines)

Haur Hezkuntza ikasten ari den 20 urteko Elorrioko neska euskalduna arratsaldeetan umeak zaintzeko prest. Tel.: 615 715 878

Neska gazte euskalduna arratsaldeetan umeak zaintzeko eta beraien ikasketekin laguntzeko eskaintzen da. Tel.: 676 259 100

Haur Hezkuntza ikasten ari den neska euskaldun gaztea, umeak zaintzeko prest (kotxea daukat) Tel.: 626 196 885

Emakume arduratsua orduka lan egiteko prest dago: umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta antzekoetarako. Tel.: 670 674 641

Elorrioko neska euskalduna goizetan, 11:00etara bitartean, umeak eskolara eramane edo zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 600 883 213

Neska euskalduna edozein lan egiteko prest, nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko, adibidez. Edozein ordutegitan. esperientzia handikoa. Tel.: 607 086 090 (Ane)

Mutil bat asteburuetan tabernan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. Tel.: 678 313 503

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Durango. Pisua salgai Andra Marin. 72 m2. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Pisua altua, 40 m2ko terrazarekin. 240.000 euro. Tel.: 696 255 083 (15:30etik aurrera)

Elorrio. Pisu ederra salgai. Tel.: 639 020 581

Zaldibar. Pisua salgai 75m2. 3 gela, egongela eta ganbara. Prezioa:170.000 euro Tel.: 655 739 792

Otxandio. Pisua salgai. Ikuspegi zoragarria Anboto aldera. 90m2

erabilgarri. 4 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua eta balkoia. Tasatutako prezioan. Tel.: 675 905 227

Mallabia. Baserrira salgai toki polit batean. Tel.: 655 702 647

Elorrio. Pisu eder bat salgai. Auzoa etorbidean. Tel.: 639 020 581

Durango. Pisu bat salgai Madalena auzoan. Guztiz berriztatua, duela 5 urte. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Oso eguzkitsua. Guztiz jantzia. Tel.: 655 709 659

Durango. Pisua salgai erdialdean. 80 m2: Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Oso argitsua. 12 urte ditu. Tel.: 656 711 625 (Mario)

Durango. Etxea salgai Landakon, Txibitenan. Sukaldea, 3 logela, saloia, bi komun eta bi balkoi handi ditu. Seigarren solairuan. Ondo zainduta. Garaje itxiarekin. Tel.: 94 616 62 97

Elorrio. Baserri bateko etxe berriztatua alokatzen da. Estreinatzeko. 3 logela, egongela, sukaldea, jangela, komuna eta atarte. 150 m2 solairu bakarrean. Tel.: 699 846 219

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altxariek, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua). Tel.: 667 882 338

Pisua salgai Errioxan, Casolareinan. 20 m2-ko txokoarekin. Tel.: 615 789 859

ERRENTAN EMAN

Durango. Logela bat alokatzen da Alde Zaharrean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Tel.: 607 086 090 (Ane)

KONPARTITU

Durango. Zonalde onean kokatutako pisua osotzeko pertsona behar da. Tel.: 695 780 944

Durango. Konpartitzeko pisu bila nabil Durango inguruan. Tel.: 691 354 031

MOTORRA

SALGAI

Ford Escort Turbo Diesel salgai. Balazta berriekin eta martxan ipintzeko berogailu berriekin. Amortiguadoreak ere berriak. IAT pasatu berri. 154.000 km. 2.100 eurotan. Erabilgarri dago, egoera onean. Tel.: 94 621 82 57

Nissan Micra salgai. Egoera onean eta oso merke: 950 euro. Tel.: 610 415 511

Peugeot 307 1.6 salgai. Gasolina. 2005eko azarokoa, 36.000 km-rekin. IAT 2011ra arte. Klimatizagailuarekin eta oso egoera onean. Garajejan gordetakoa. 8.000 euro. Tel.: 677 333 167 (Iratxe)

Land Rover Defender 2.5 TD salgai. 2001eko. 125.000 km. Enbrage berriarekin. Egoera onean. 9.500 euro, negoziagarri. Tel.: 696 781 189

Renault Clio 1.9 D salgai. 2000. urtekoa. 170.000 km. Kolore urdinekoa. Distribuzioa eginda. Gurpil berriekin. Egoera onean. 2.500 euro. Tel.: 696 781 189

Saab 93 1.9 Tdi salgai. Beltza, familiarra. 2006ko urrikoa. Bermea 2010eko urria arte. Tel.: 660 467 729

LOKALAK

SALGAI

Ile-apaindegia sagai. 19 m2 ditu. Tel.: 626 864 971

Durango. Garaje itxia salgai. Alde zaharretik gertu. Prezio onean. Tel.: 665 729 936

ERRENTAN EMAN

Elorrio. Garaje bi alokagai Goieta kalean. Tel.: 657 793 993

Durango. Haizetarako garajea alokatzen dut Ibaizabal auzoan. Tel.: 94 681 89 47 edo 636 046 318

Durango. Bulego bat alokagai Plateruen plazan. 37 m2 ditu, eta jantzia dago. Dena prestatuta. Gela handi bat eta beste bi normalak. 750 euro hilean. Tel.: 656 780 215

Durango. Garaje itxia alokagai Alde Zaharretik gertu. Tel.: 665 729 936

IRAKASKUNTZA

EMAN

Elorrio. Ekonomian lizentziaduna eta 8 urteko esperientziadun neska euskaldunak klase partikularrak ematen ditu: DBH, Baxilergoa, LH... Tel.: 616 802 932 (Oihane)

HARTU

Matematika irakaslea behar da etxean klase partikularrak emateko. 3. DBH. Tel.: 605 767 258

ANIMALIAK

SALGAI

5 urteko aker ederra salgai Tel.: 627 637 536

Txakurkumeak salgai. Bost pitbull. 200 euro bakoitza (Negoziagarri). Tel.: 677 850 585

Etxeko oilaskoak saltzen dira. 2-3 kilokoak. Zuriak 5 euro kilo, eta gorriak 6. Tel.: 655 998 402

Kanario horiak saltzen ditut. Tel.: 689 586 054

TOPATU

Katua topatu dogu Elorrioren, zuria eta marroi argi kolorekoa. Zurea bada, deitu. Tel.: 615 764 273

BESTEAK

SALGAI

Lur sail eraikigarria salgai Urdaibain Eñe inguruan 3.000 metro koadro inguru. Tel.: 619 027 538 (19:00etatik aurrera)

5.000 metro koadroko lur saila salgai. Zaldibarren Gazaga auzoan. Tel.: 639.772.436

Ume txiki batendako bizikleta salgai. 3 urteko ume batentzako gutxi gora behera. 14 pulgadako, 4 erruberaduna, kolore gorrikoa. 40euro. Tel.: 615 79 29 71



Egongelarako altzaria salgai. Egoera oso onean. Luzera 3,34 m, altuera 2,20 m eta zabalera 40 zm. Tel.: 685 769 503

Garbigailua salgai. Berria da. Berme barruan. Erdi prezioan. Tel.: 695 728 383

Akazia taketak saltzen dira. Neurri guztietakoak eta eskuz eginda. Landa, mendi edo mahastientzako. Tel.: 619 088 233

Wii kotsola berria salgai. Wii Sports joko eta bigarren mandoa opari. 160 euro. Tel.: 686 425 295

Sailfish Vibrant Neoprenoa salgai. Luzea eta berria da. Gizonezkoen S neurrikoa (165-178zm, 68-78 Kg). Tel.: 665 714 783

Autorako aulkia salgai. Romer Isolix duo plus. 2 urtekoa. Berri-berria. I taldekoa (9-18 Kg). Segurtasun uhalarekin edota isofixagaz lotzeko. 175 euro. Tel.: 646 740 643

Bibolina salgai. 1/2 -eko neurrikoa. Funda, arku, resina eta ordezeko sokak. Egoera onean. 40 eurotan. Tel.: 637 292 465

Telefono mugikorra salgai. LG markakoa. Kargadorearekin. Tel.: 689 847 603 (Nerea)

EROSI

Iurreta. Landa bat erosi edo errentan hartzeko prest nago. Tel.: 626 156 817

Kotxerako **umeen segurtasunerako aulkia** (1,2,3 taldekoa) eta jaioberrientzako moisesa erosi nituzke. Tel.: 650 573 607

Bikiak paseatzeko aukitoxa erosi gura dut. Tel.: 650 573 607

BEREZIAK

Ingelesez berba egiteko jendearen bila nabil. Tel.: 655 722 296

Indiara joateko lagun baten bila nabil. Apiril inguruan. Tel.: 695 701 172

Gizon bat emakume bila dabil, 42 urte ditut. E-mail: virgicre@gmail.com

Biodantza ikastaroa eskaintzen dut barikuetan Elorrioko Lurdes ikastetxean, 19:00etatik 21:00etara. Izena emateko: Tel.: 626 661 292 (Mentxu)

Txakur portaeran aditua. Txakurrari laguntzeko bide onena. Turid Rugasen eskolako eta PDTE Europako elkarteko kidea. Tel.: 649 402 296 edo 649 402 290



Iurretako Renault kontzesionarioak **harrerako telefonista** behar du. Beharrezko ezaugarriak: Erdi mailako prestakuntza, euskaraz ondo jakitea, ingelesa eta frantsesa, harremanetarako jarrera ona, komertzial jarrera

Interesa dutenek bidali ditzatela kurrikuluma eta argazkia, **“Telefonista”** erreferentzia jarriaz : **GAURSA AUTOAK S.A.** Arriandi 12 48215 Iurreta

INMOBILIARIAK

FI AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamentu berriak salgai.
- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen. Salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen. Salgai.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz berriztuta)
- Kirikiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalea: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz berriztuta eta erdi jantzia)
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Iparragirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Terraza. Trastelekua eta 2 kotxerentzako garajea.
- Monago Torren: Halla, egongela-jangela, 3 logela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- Murueta Torre: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plaza: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Frantzisko: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. 2 balkoi eta trastelekua.
- San Ignazio Auzunea: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Agustinalde: Apartamentu berriak salgai.
- San Fausto: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna.
- Txibitena: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia.
- Untzillaitz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Erdi jantzia.
- Urkiaga-Torre kalea: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 garaje. Jantzia.
- Abadiño-Matienea: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Abadiño: 3 solairutako etxebizitza berriztatzeko.
- Bedia: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Berrikuntzekin.
- Berriz: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekua.
- Berriz: Duplexa. Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Erdi jantzia. Garaje itxia eta Trastelekua.
- Berriz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara. Eguzkitsua eta guztiz kanpora ematen du.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 200.000+ BEZ
- 2 logela garajea eta trastelekuarekin 233.000+ BEZ
- 3 logela garajea eta trastelekuarekin 350.000+ BEZ
- Tabira: Logela bakarreko apartamentuak. Ganbararekin.
- Pagasarri kalea: Azkeneko 3 etxebizitza salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela. Garaje itxia.
- Abadiño: 2 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara.
- Zaldibar: Aukera ona. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berogailua. Balkoia. Garajea.
- Zaldibar: Lursaila salgai eraikitzeko aukerarekin.
- Atxondo: Familia bakarreko salgai. 4000 m2ko lursaila.
- Abadiño: Familia bikoak: 250 m2. 400 m2ko lursaila.
- Durango: Adosatua salgai. 250 m2. 60 m2ko lursaila.
- Elorrio: Adosatua salgai. 240 m2. Ortu eta lorategia.
- Durangaldea: Txaletak eta baserriak zonalde ezberdinetan salgai edo alokairuan.
- Durango: Garajeak eta garaje itxiak salgai edo alokairuan. Zonalde ezberdinetan.
- Ezkurd: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
- Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzaren sartzeko moduan.
- Herriko Gudarien kalea: 100 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
- Monago Torre: 130 m2. 3 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara.
- Ermodo: Erdi berria. 90 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. 110 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Murueta Torre: 90 m2. 3 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Pagasarri kalea: 94 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Antso Eztegi: 97 m2. 3 logela. Ganbara. Berriztatua.
- San Frantzisko: 75 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi.
- Astepe: 3 logela. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du. Guztiz berriztatua.

ETXETXO C. INMOBILIARIA
Bilgunea: Txantrea F. J. de Zumarraga Kalea
Tel.: 94 681 40 48 • DURANGO • etxetxo@hotmail.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Pinondo: Duplexa. 126 m2. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Frantzisko Ibarra: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 330.600 €.
- Durango: 90 m2. 4 logela eta 2 komun.
- Alluitz: 150 m2. 4 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara.
- J. Olazaran: 95 m2. 3 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara. Garaje itxia.
- Tabira: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Eguzkitsua. Oso polita. Garaje itxia.
- Durango: 2 logela. 156.300 €.
- Plateruen Plaza: Atikoa. Estreinatzeko. 2 logela. Terraza handia. Garajea.
- Tronperri: 115 m2. Hidromasaje-bainuontzia. Gustatuko zaizu.
- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi berria. Bizitzaren sartzeko moduan.
- Montevideo: (Jesuitas). Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Ezkurdin: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
- Ezkurdin: 70 m2. 1. go solairua.
- Sasikoa: 2 logela. Erdi berria. Ganbara. Garaje itxia. IURRETA
- Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza handia.
- Zubiaurre: 3 logela. Guztiz jantzia. 210.000 €.
- ABADIÑO
- A. Baesclin: 3 logela. Ikuspegi politik.
- San Trokaz: Logela bakarra. Erdi berria.
- Iturritxu: Berria. 2 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara eta trastelekua. Garajea.
- Matiena: 3 logela. 180.000 €.
- ZALDIBAR / BERRIZ
- Zaldibar: Berriztatua. Eguzkitsua. 3 logela, egongela eta sukaldea.
- Zaldibar: Zalduasolo. 90 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. Terrazak. Garajea aukeran.
- BERRIZ
- Iturriza: 3 logela eta 2 komun. Eguzkitsua.
- Legaño: 2 logela eta egongela. Balkoia. Eguzkitsua.
- ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN, LOKAL KOMERTZIALAK, GARAJEAK,...

BISITATU GAITZAZU BULEGO BERRIAN, SAIBIGAIN 1, (Fray Juan de Zumarraga kaletik sarrera).

Amboto
San Agustinalde, 4 - 1 Eak. DURANGO
TE: 94 681 35 62. email: amboto@eskabiz.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak eta sukaldea jantzia. 172.000 €-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 700 € hilero.
- Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. 2, 3, 4 eta logela bakarrekoak.
- Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreinatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Tabira: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
- San Ignazio: 3 logela, sukaldea, jangela, despentsa, egongela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
- Durango: 3 logela, sukaldea, egongela, jangela eta 2 komun. Garajea aukeran.
- Fray Juan de Zumarraga: 4 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea terrazarekin eta 2 komun. Orientazio ona.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, trastelekua eta garajea. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatua. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- San Fausto: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Prezio interesgarria.
- Intxaurrondo: Apartamentua. Logela, komuna, sukalde-egongela jantokia, eskegitokia eta trastelekua.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.


JAKA

- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trastelekua. Estreinatzeko.

TXALETAK SALGAI

DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

	*Eskualdeko dorretxea	Jalekeria, jatunkeria	Sorgorra
	Inguxetiako hirib.	... egin, gogaitu	
	Nafarroako ibaia		
	Biluzi		
Kanping denda	Gipuzkoako lumutur		
Sabaikaria	Basozain		
Era lasaian			
Nafarroako alderdia			
	Kanpezuko herrikka		
	Igarobide		
Urteen kopuru		Jainko egiptoarra	
Petatxu		Behazun	
			Toka, naiz
Ezinik			
Emakume izena			
	Kontso. bustia		Bokala
	Telebista		Galioaren ikurra
Toka, ditugu			
Teilatupeko gelak			

SUDOKU >

1

7	1		3	5		
	6			8	3	
9	8	2	4		1	
1	5			2		
	4	7	1	2		
3	7			9	8	
2		8	7	9	6	
		5	9	3	1	7
		7			8	

2

			7	1	
	4		8	9	2
2	6				
	7	1		8	3
		3	1	9	8
6					2
			7		
	9			1	6
3	1	6	5		

8	3	2	1	6	4	5	7	
7	5	9	8	3	2	1	6	4
1	6	9	7	5	2	3	8	8
6	9	8	3	5	7	4	1	2
5	7	1	4	2	8	6	9	3
4	2	3	6	1	9	8	5	7
5	7	1	4	2	8	6	9	3
2	1	6	3	9	8	7	8	5
3	4	7	1	6	9	2	1	1
9	8	5	4	2	3	4	6	

2

6	9	7	2	5	1	3	8	4
4	8	5	9	3	6	1	7	2
2	1	3	8	4	7	5	9	6
3	7	2	4	6	5	9	1	8
8	4	6	7	1	2	6	3	5
1	5	6	3	9	8	2	4	7
9	3	8	5	2	4	7	6	1
5	6	4	1	7	9	8	2	3
7	2	1	6	8	3	4	5	9

1

G	A	N	V	G					
V	A	R	V	B	N	V	G		
K									
U	G		I	A	T			•	
A	•	D	•	A	N	A	•		
N	V	A	N	E	Z		•		
•	I	A	B	A	K	I			
•									
R	A	•	N	I	N		•		
O	E	O	•	N	P		•		
I	K	I		A	S	A	I	•	
A	L	A	T	A	L	A			
R		H	I	G	E	R	•	K	•
O	B	•	R	O	B	•			
S	•	G	•	M	A	G	A	S	•
•	•	•	•	•	•	•	•	•	•

HOROSKOPOA >

Aries
marxoak 21 - apirilak 20
Utzi lotsak alde batera eta izan zaren bezalakoa, horrela gauzak hobeto irtengo zaizkizu eta. Egin ezazu aproba!

Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20
Gehiago irten beharko zenuke! Zure pentsamenduetan murgilduta egon beharrean hobe duzu kalera irten.

Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20
Pazientzia handia duzu, baina hori ere bukatu egiten da. Zuk ere barruan duzuna atera behar duzu eta ez soilik besteena entzun.

Cancer
ekainak 21 - uztailak 20
Hori nahaspila daukazuna. Ez duzu iparra aurkitzen. Iparrorratza beharko zenuke, baina zure aldetik zerbait jartzea ez legoke txarto.

Leo
uztailak 21 - abuztuak 23
Ametsetan igarotzen duzu egun osoa, eduki hankak lurtean. Dena ez da hain polita, baina hain txarra ere ez. Bizi errealitatea.

Virgo
abuztuak 24 - irailak 23
Gustuko duzun pertsonak kasu egin eta zuk ezin erreakzionatu. Horrelako aukerak ez dira beti gertatzen, orain zure txanda da.

Libra
irailak 24 - urriak 23
Lanean gogoz eta gustura ari zara. Ez galdu ilusio hori eta urrun iritsiko zara. Baina ez ahaztu, dena ez da lana; ingurukoekin ere egon.

Scorpius
urriak 24 - azaroak 23
Azken aspaldian bakarrik sentitzen zara, baina ez itsutu horrekin. Momentu egokia erabakiak hartu eta aurrera jarraitzeko.

Sagittarius
azaroak 24 - abenduak 23
Bizi momentua; beti geroari begira egotea ez da egokiena. Ez duzu orain esku artean duzun horretan indar guztia jartzen.

Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20
Harri eta zur gelditu zara esan dizutenarekin. Baina badakizu, hamaika ikusteko jaiok gara. Eta hori ere positiboa izan daiteke.

Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18
Indar handia jarri duzu zure proiektua aurrera ateratzeko. Aspaldian nahiko nekatuta zaude, baina azken bultzada bakarrik falta zaizu.

Piscis
otsailak 19 - martxoak 20
Ezin zu bila ari zaren pertsona aurkitu? Ez bilatu hainbeste gutxien espero duzunean agertuko da eta.

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Iketza, Iurretako postari ezagunenaren urtebetetze eguna da domekan. Zorionak eta mosu handi bat...noren partez?



Ehiarrek urtetxo bi egin ditu gaur. Zorionak eta muxu potolo bat Irati, Garazi, Anartz, Elene, Urko eta laguntxo guztion partez.



Kepak, Durangaldeko mutikorik zintzo eta ederrenak urte bi egingo ditu domekan. Eguna oso ondo pasatu eta musu handi bat familiaren partez.



Lihier eta Haitz, hau bai pare! Anaia bi hauek hilabete berean ospatzen dute urtebetetze eguna. Batak otsailaren 1ean urte bi eta besteak otsailaren 11n lau urte. Zorionak bikote! Tripa bete-bete egingo dugu merendolaz merendola.




Paul Arrinda Fernandez, urtarrilaren 29an mundura etorri zara. Eskerrik asko ekarri diguzun poztasunaren-gatik. Zorionak Ana eta Unai.



Peio Arrese! Ondo pasatu zure urtegunean. Zorionak eta musu handi bat zure zaintzaile eta bere familiaren partez. Mutil handi!



Alles gutes zum Geburtstag **Miren!** Ederto pasatu Alemaniatic. Trankil, hemen ez egon arren ederto ospatuko duguet! Musu bat familiaren partez.



San Blas egunekoa dan gure **Haizea** txikitxoari patxo potolo bat Alemaniatic. Jarraitu deizula halako xaladia izaten.



Mari Karmenek urteak egin zituen atzo, otsailaren 4an. Zorionak auzokideen partez. Holan jarraitu hain guapa eta alai. Tostaden zain gagoz.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Aste bitartean menu berezia 16 euro, 18e/ardoa, 20e/kriantza. Afariak egunero astelehen eta igandeak ezik.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehena eta martitzen gabaz itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Merendolak.

Jatetxe gida



Ganeko Etxe

Elizondo, z/g Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe gozoan, etxeko moduan sentitzeko. Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro.



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Templete Jatetxea

Hotel Kurutziaga, Durango
Tel.: 94 620 08 64

Ospakizunak.
Karta.
Eguneko menua.
Menu berezia.

Hemen agertu gura badozu,

DEITU

94 621 79 02

"Arratsaldero zarratu arte egoten naiz jubilatuen etxean"

100 urte egin dituela eta lurretako jubilatuen etxean omenaldia egin diote Apolonia Solanori

Eguenean mende bat bete da Apolonia Solano jaio zenetik. Sevillako Lora de Estepa herrian jaio zen Apolonia, baina bizitza erdia baino gehiago Durangaldean egin du. Lurretan bizitzeaz oso harro dagoela esan digu. Egunero jubilatuen etxera joaten da, eta bertan omenaldia egin diote bere urteguenez.

Zelan jaso duzu omenaldiaren berria?

Ni oso pozik nago. Mundu guztia ari zait galdezka, eta ni pozik nago nire adinera heldu naizelako eta gainera osasunez oso ondo nagoelako. Memoriaz oso ondo nabil eta hori da garrantzitsuena. Gauza batzuetarako laguntza behar dut, baina nik beti ematen dizkiot eskerrak hori goikoari horrelako osasuna izateagatik.

Zelan gogoratzen dituzu Lora de Estepan bizitako lehen urteak?

Haurtzaroz ez naiz asko gogoratzen, baina gaztaro gogorra izan nuen nik. Lan asko egin nuen, eta gero gerran asko sufritu

nuen. Seme-alabak aurrera ateratzeko lan asko egin behar izan nuen gerra ostean alargun geratu nintzelako. Gerrak hiru urte iraun zituen, baina goseak askoz ere gehiago.

Zelako lanak egiten zenituen Sevillan?

Denetik egin nuen. Soroan egin ahal diren behar guztietan ibili nintzen: azeitunak, artoa, berakatzak... jasotzen nituen, eta segan ere aritzen nintzen. Hori zen lanik neketsuena. Gizonen lanak izaten ziren, baina androk ere gogor egiten genuen. Orain nire herrian ia ez dago nekazaritza. Nik, soroko lana amaituta, "zuritu" egiten nuen. Sevillan hormak-eta margozteari zuritu esaten diote. Hamabost urte gaz asko barik geratu ginen, eta gogor lan egin behar izan nuen.

Gerra garaian asko sufritu zenuela esan duzu.

Bai, gurago izaten dut ez gogortzea. Lehenengo, tropak gure herriara sartu zirenean nire neba nagusia hil zuten. Gerran bi neba izan nituen, bata frentean, eta bestea beste aldean. Nire senarra preso egon zen denbora asko. Guk ez genekien bizirik zegoenik ere, eta gero hil egin zuten. Askok sufritu genuen.

Gero garai hobeak etorri ziren.

Bai, eta zorte handia izan nuen seme-alabak hona etorri zirenean. Orduan, "tortillaren beste alde" ezagutu nuen. Hemengo etxe one-

tan egin nuen lan nik, neskame moduan. Goizean goizetik irtezen nintzen etxetik eta hiru etxetan egiten nuen lan aldi berean. Hiru neba-arreba etorri ginen hona, eta orain pozik nago, inguruko denak lanean ditudalako.

Urteotan asko aldatu da zure bizitza.

Bai, benetan ere. Orain nire seme-alabekin nago, eta oso ondo zaintzen naute. Nire erraina zenak ere oso ondo zaintzen ninduen. Domekero joaten nintzen beragaz mezetara. Matienara ere askotan joaten nintzen, nire herriko lagun bat bisitatzen. Pasatu dudana guztia, bueltan etorri zait orain. Orain mezetara ez naiz joaten igandero, kostatu egiten zait haraino joatea, baina ahal dudanean joaten naiz.

Jubilatuena etxera bai, egunero joaten zara.

Askok gustatzen zait hara joatea, eta arratsaldero joaten naiz. Bost eta erdietatik zarratu arte, bederatzia arte, han egoten naiz gehienetan. Kartetan jokatzeko dugu. Jokatzeko ari garen artean tantoak kontatzen eta ibiltzen naiz, horretan nahiko abila naiz eta. Egutetan bingoa izaten dugu, eta orduan ere gustura.

Biloba eta birbiloba asko izango dituzu...

Hamar biloba eta bederatzir birbiloba dauzkatz, eta asko gustatzen zait txikienekin egotea. Izaro, adibidez, oso argia da, eta Apolonia barik "abuelita kolonia" deitzen dit! Ilobak ere asko dauzkatz, eta denak dira maitekorak nirekin.

Familiarekin urtebetetzea ospatzeko tartea hartu duzu.

Bai, domekan etorriko dira denak bazkaltzera. Guztira 23 nagusi eta bozpasei ume izango gara.



Marisa Barrena

Hirurogeita zazpi

Hirurogeita zazpia ez da numero magikoa, ez behintzat Gizarte Segurantzako itsulapikora berrogei urtetik gora dirua bota dogunontzat. Izan be, egunokaz Espainia aldetik datozen barriek itzelezko kolpea eta zirrara eragin deus-keuz, erretiroa hartzeko edade ofiziala 65 urtetik 67ra atzeratuko dela iragartzen hasi direnetik.

Aitatutako neurri hori baina, ez da guztiontzako izango. Antza, salbuetsita egongo dira, besteak beste, legea egiten diharduen politikariak eta zenbait lanbidetako profesionalak. Urte gehitze hori soldatapeko langileentzako izango da batik bat. Zoritxarrez neurri honek gitxien irabazi eta baldintza txarretan lan egiten dabenek langileei eragingo deute beste inori baino gogorrago.

Bitartean, oraindik lanean estreinatzen auzerarik izan ez dabenek gazte doguz inguruan eta milaka langabe. Irtenbide bat aurkitu guran, azken urteotan langabeon formakuntzarako milioka euro irtezen dira erakunde publikoetatik, hau da, langileon lanetik. Zertarako baina? Gero sofa berotzen jarraitzeko?

Nire ustez bidezkoagoa izango litzateke gazteei eta langabeei lanerako aukera emotea, ia bizitza osoa lanean daren beharginean urteak luzatzea baino. Gainera neurria orekatuagoa izateko, kotizatutako urte kopurua bekontuan hartuko beharko litzateke.

Azken baten, zelan edo halan, Gobernuaren proposamen horri aurre egiten ahalegindu beharko dogu, osterantzean, praka eta galtzerdi motzetan lanean hasitako askok, atso-aguretu ostean be, lanean jarraitu beharko dogu.



Apolonia Solano

■ Jaiotzez Sevillakoa da iurretar hau

■ Ehun urte bete berri ditu

ESKAINNTZA AKADEMIKOA:

- 0-5 urte - HAUR HEZKUNTZA
- 6-11 urte - LEHEN HEZKUNTZA
- 12-16 urte - DBH
- BATXILERGOA - Ibaizabal Ikastolan
- HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

ZERBITZUAK

- Jantokia
- 3 urtetik aurrera: zaintza zerbitzua
- Autobusa
- Eskolaz kanpoko jarduerak ikasturtean eta udan

PROIEKTU PROPIOAK

- Eleaniztasuna
- Teknologia Berriak
- Antzerkia
- Euskaraz bizi

